



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

## 2022KO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Luken Arkarazo Silva  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Oskar Santamaria Pikabea eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko urriaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- 2022KO UZTAILAREN 21EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2022ko uztailaren 21eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO IRAILAREN 27TIK URRIAREN 21ERA (2022/957-2022/1052).**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Alkatetzak 2022ko irailaren 27tik urriaren 21era bitartean (2022/957-2022/1052) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2022KO AURREKONTU EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Kontu-hartzaileak 2022ko Aurrekontu exekuzioaren berri eman du. Bai Foru Arauak eta bai Usurbilgo Udal Arauak zehazten dutela dio hiru hilabeteetan behin Udalbatzari eta Foru Aldundiari informazioa eman behar zaiela. Foru Aldundira informazioa urriaren 24ean bidali zela zehaztu du.

Jarraian, balorazio bat eginez esan du aurrekontua exekutatzen normalean bezala ari direla, sarrerak espero duela dio urte bukaeran %80tik gora exekutatzea, aurreikusi bezala.

Gastuetan ere kapitulu nagusiak nahiko zuzen doazela zehaztu du.

Inbertsioetan beti bezala gertatuko zaiela esan du, tartean badaudela dio inbertsio batzuk aurreko urteetatik datozenak eta txertatzen joaten direnak, eta baita exekutatuko ez direnak, Agerreazpiko zubia adibidez. Baina aurtengo ekitaldian eta iazko ekitaldian jasotakoak nahiko txukun exekutatzen ari direla zehaztu du.

Zorpetze mailari dagokionez, kontu-hartzaileak esan du jeisten doala eta momentu honetan %10,11n dagoela. Baina prestamo berria hitzartzen denean berriz ere %18 ingurura igoko dela dio, eta legezko muga %75ean dagoela zehaztu du.

Batzarkideei 2022ko aurrekontu exekuzioaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

### **4.- 2022-007 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.**

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Europako funtsetatik Zumartegi industrialderako laguntzarik ez denez iritsi, kreditu aldaketa hau dakartela adierazi du.

Batzarkideek Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2022-KALD-000007-00

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak 2022ko urriaren 20an egindako aldeko irizpena ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	428.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>428.500,00</b>

#### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	80.000,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	348.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>428.500,00</b>

**Bigarrena.-** Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

## **5.- UDARREGI IKASTOLARI USURBILGO HAUR ESKOLAREN 2008KO ZERBITZU ETA KUDEAKETA KONTRATUAN JARRITAKO BERMEA ITZULTZEA.**

Alkateak azaldu du 2008an esleipena plenoak egin zuenez, orain bermea itzultzea ere plenoari dagokiola.

Batzarkideek, Hezkuntza eta Garapen ekonomiko batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zenb.: ID.05/2008-0320

### **Aurrekariak**

Udalbatzak, 2008ko uztailaren 8an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez Usurbilgo Haur Eskolaren zerbitzua kudeatzeko hitzarmenaren garapena eta jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen. Aldi berean esleipena eta lizitaziorako oinarri bezala erabili ziren Baldintza Tekniko eta Juridikoak onartzea erabaki zuen. Bestalde, zerbitzua emakida bitartez esleitu ahal izateko kontratazio espedientea onartzea eta prozedura irekia onartzea erabaki zen.

Udalbatzak, 2008ko abuztuaren 7an egindako ezohiko bilkuran, Usurbilgo Haur Eskolaren Kudeaketa eta erabilpenerako ustiapenaren emakida “UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEA” enpresari egin zion behin behineko esleipena, honako ebazpenaren arabera:

*“LEHENENGO: Usurbilgo HAUR ESKOLAKO zerbitzua, zeharkako kudeaketa bitartez emakida administratibo erregimenean hartzeko UDARREGI IKASTOLA, I.K.E.ri behin-behineko esleipena egitea, Kontratazio Mahaiak egindako proposamena ontzat hartuz.*

*BIGARREN: UDARREGI IKASTOLARI hamar lan egunetako epea ematea behin betiko bermea jarri dezan, 6.772,5 €koa.*

*HIRUGARREN: Erabaki hau interesatuari, udal kontu-hartzaileari eta udal diruzainari jakinaraztea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.”*

Emandako epean bermea jarri zuenez 2008ko abuztuaren 29an kontratua sinatu zen.

Klausula Juridiko, Ekonomiko eta Administratibo Berezien Pleguaren 2. klausularen arabera eta kontratuaren 5. klausularen arabera emakidaren iraupen epea hamabi urtekoa zen, urte bat gehiago arte luzagarria, hamahiru arte gehienez. 2020ko otsailaren 27an egindako ezohiko bilkuran, Usurbilgo Udalbatza Plenoak kontratu honen urte beteko luzapena egitea erabaki zuen, 2021eko abuztuaren 28a bitarte. Hortaz, une honetan, kontratu honen indarraldia amaituta dago.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Kontratu hori amaituta, dagokion lizitazio prozedura egin ondoren, Udabaltza-Plenoaren 2021eko ekainaren 24ko erabakiz esleipen berria egin da Usurbilgo Udarregi Ikastola I.K.E.-ren alde, kontratua 2021eko uztailaren 6an sinatuz eta irailaren 1etik aurrera indarrean sartuz.

### **Bermea itzultzea**

2008ko abuztuaren 29ko kontratuak bere 3. klausulan adierazten du bermea kontratu bukaerarekin batera itzuliko zaiola, pleguetan jasotakoaren arabera.

Plegu administratiboetako 9. klausulan behin betiko bermearen itzulketaz zera dio: SPKL-ren 90. artikulua arabera egingo dela, baina ez du bermealdiaren eperik zehazten.

Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 90.5 artikulua arabera, kontratua amaitu eta urte bete igaro ondoren, ezer erreklamatzekorik ez balego, bermea itzuliko da. Salbuespen bat egingo du: kontratuaren kopurua obrak ez diren gainerako kontratu motetan 100.000 eurotik beherakoak baldin badira, epe hori 6 hilabetetara murriztuko dela.

2008ko kontratuak ez du kontratuaren bolumen edo kopururik aipatzen, unitateko prezioak baizik, hortaz, kopuru hori zenbatekoa zen jakiteko bermea hartu da erreferentziatzat, eta 6.772,50 euroko bermea kontratuaren %5ari baldin bazegokion, kontratuaren %100a 135.450 eurokoa zela ulertu liteke, eta ondorioz bermealdia urte betekoa izaten jarraitzen duela.

Hori horrela, 2008ko kontratuaren bermealdia 2022ko abuztuaren 28an amaitu da.

### **Aplikatu beharreko araudia**

- Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen, eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.
- Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duena.
- Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegilea, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarri, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.
- Kontratazio hau bideratu duten Klausula Juridiko, Ekonomiko eta Administratibo Berezien eta Preskripzio Teknikoen Pleguak.

### **Lege txostenak**

Espedientean Kontratazio Teknikariaren lege txostena eta Hezkuntza saileko arduradunaren txostena aurkitzen dira, biak ere bermea itzultzearen alde.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Beraz, guzti hori ikusita, Hezkuntza eta Garapen ekonomiko Batzorde Berriemateak, 2022ko urriaren 5ean, Ainhoa Arrozpide Landa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Josune Urkola Larrarte eta Patxi Suarez Perezen aldeko botoekin, aho batez luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Udarregi Ikastola I.K.E. enpresari 6.772,50 euroko abala itzultzeari onespena ematea.

**BIGARREN:** Erabaki honen berri Udarregi ikastola IKE-ri, kontu-hartzaileari eta Hezkuntza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **6.- SANTUENEA AUZOKO ABENDUAREN 17KO GALDEKETA: GALDERA, PROZEDURA ADMINISTRATIBOA ETA AGIRIAK ONTZAT EMATEA.**

Ainhoa Arrozpidek azalpenak eman ditu.

Ainhoak adierazi du gai honek abiapuntua 2021eko udazkenean duela eta protagonista Santueneako auzotarrak dituela.

2021eko udazkenean galdetegi bat egin zela dio eta horren bitartez auzoaren diagnosi bat jaso zela.

2022ko urtarrilean 6 hilabeteko tarte bat hartu zela esan du aipatutako diagnosi horretatik proposamen fase bati ekiteko. Santuenearako behar dituzten eskuhartze, proiektu eta programak zehazteko saioak egin ziren eta horren ondorio dela dio auzo plana.

Uztailaren 5ean talde eragileak eta udal ordezkariak egindako bilera batean plan hori udalaren esku jarri zela adierazi du.

Jarraian, auzo plan horrek zer jasotzen duen azaldu du, hau da, epe ertain batean auzoak ze eraldaketa izatea nahi duten. Gauza askotan adostasuna zegoela esan du bai auzotarren artean eta baita talde eragilekoen artean ere, baina bazegoela gai bat dio adostasunik ez zegoena ez auzotarren artean ez eta talde eragilean daudenen artean ere. Auzoaren



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

erdigunea berrantolatzeko garaian bertan dagoen eskubaloi pistak hainbat eskuhartze zaildu egiten dituela eta honen aurrean bi iritzi zeudela esan du, batetik, berrikuntza integral bati begira eskubaloi kantxak gaur egun dagoen bezala oztopoak sortzen dituela ikusten dutenak eta, bestetik daudela dio eskubaloi kantxa ukitu nahi ez dutenak, ondare bezala, auzoaren identitate bezala bizitzen dutenak eta oraindik bere funtzioa betetzen duela uste dutenak.

Bi iritzi kontrajarri horien aurrean talde eragileak ikusi zuela dio onena zela auzotarrei beraiei iritzia galdetzea eta hori dela dio uztailaren 5ean proposatu zena, eta galdeketa elkarlanean egitea erabaki zela gaineratu du.

Udara pasa ondoren, Santuenea Elkarlaneaneko talde eragileak parte hartze prozesuko galderaren inguruko hausnarketari ekin ziola esan du eta udalak konpromezua hartu zuela prozedura administratiboa martxan jartzeko galdeketa hori burutzeko.

Ainhoak esan du garrantzitsua iruditzen zaiola aipatzea bidea nola egin den, eta 2021eko udazkanean prozesua nola hasi zen eta honaino nola iritsi den azaldu du. Prozesu guzti horretan auzotarren parte-hartzea azpimarratu du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.07/2022-0124

## **Aurrekariak**

Santuenea Elkarlanean parte hartze prozesua 2021eko udazkanean abiatu zen. Urria eta Abendua bitartean egindako galdetegi eta elkarrizketetan jasotako erantzunekin auzoaren diagnostiko bat eskuratu zen. Prozesu hau Auzo Planeko talde eragileak gidatu du. Bertan auzotarrak eta Hiritik At Kooperatiba daude. Azken honek laguntza teknikoa eskaintzen du.

Diagnostikotik ateratako ondorioekin 2022an proposamenen faseari ekin zitzaion. Bigarren fase honetako gakoa galdera hau izan da: Zer esku-hartze, proiektu eta programa behar ditu Santueneak?

Auzo Planaren zirriborroa eskuetan talde eragilearekin bi bilera burutu ziren (maiatzaren 4 eta 11ean) plana aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko. Ekainaren 10ean auzoko frontoian egingiko aurkezpen irekian azken ekarpenak jaso ziren. Fase hau amaitzeko uztailaren 5ean Udalarri Auzo Plana aurkeztu eta entregatu zitzaion.

Auzo Planak epe ertainera begira auzoaren eraldaketa nolakoa izatea nahi den jasotzen du. Santuenea hobe bat izateko helburua du, bertakoentzat eta bertaratzen direnentzat bizigarriagoa izatea. Proposamen zehatzak jasotzen ditu mugikortasuna, irisgarritasuna, zaintza, energia eraginkortasuna edota espazio publikoari buruz. Gai gehienetan adostasuna lortu bada ere, ez da hala izan auzoaren erdigunearekin. Eskubaloi pista da nagusi bertan, eta horrek guztiz baldintzatzen ditu auzoaren espazio publiko zentral honetan auzotarrek



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

egin ditzaketen jarduerak. Era berean, eskubaloi zelaiaren azalera handi eta kokapenak, auzoaren artikulazio urbanistikoa (eta aldaketa posibleak) determinatzen ditu. Auzo Planaren prozesuan egoera honekiko bi iritzi multzo nagusi azalera dira: Askok iritzi dute eskubaloi kantza (egun den bezala) oztopo dela auzoaren hobekuntza integrala pentsatzeari begira. Beste askok uste du, pista (den bezala) ukitu ezin den auzo ondarea dela eta oraindik orain bere funtzioa betetzen duela auzoan. Auzoan ez ezik, talde eragilean ere iritzi kontrajarriak daude eta ez dira gai izan proposamen bateratu bat aurkezteko. Eskubaloi pista txikitu edo ez, erabakia estrategikoa izan daiteke auzoaren etorkizunerako, baina era berean polemikoa ere bada, auzoaren historia eta identitatea ukitzen dituelako. Horregatik, talde eragileak ebatzi du egokiena auzotarrei zuzenean galdetzea dela. Beraz, berme guztiak izango dituen galdeketa egitea proposatu dio auzo taldeak Udalari eta elkarlanean antolatzea.

Irailaren 3an eta 10ean talde eragileak galderaren inguruko hausnarketari ekin dio eta bertan honen gaineko kontsentsu batetara heldu da. Biler horien ondoren auzo taldeak ondorengo galdera egitea proposatzen du:

Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar badira ere? BAI/EZ/ZURI  
¿Quieres que se reorganice el espacio central del barrio, aunque esto implique reducir la cancha de balonmano? SI / NO / Blanco

Idazkaritzak lege txostena eta prozedura proposamena osatu ditu 2022ko urriaren 13ko datarekin.

Prozedurari dagokionez:

## **“AUZO GALDEKETA GAUZATZEKO PROZEDURA ADMINISTRATIBOA**

### **1.- OROKORREAN**

- Galdeketa eta prozedura onartzeko organo eskuduna: Udalbatza Plenoa.
- Deialdia egiteko organo eskuduna: Alkatea. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratuko da.
- Beharrezkoa denean, prozedurari dagozkion gainerako alderdiak iragarki ohola, Bando bidez edo udaleko web orriaren bidez emango dira ezagutzera.
- Espreski kontrakorik ez bada esaten, prozedura honetan ezartzen diren epeak egun naturalak ulertuko dira.

### **2.- GALDERA**

Auzo galdeketa egingo den galdera honakoa izango da:

Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar badira ere? BAI/EZ/Zuri  
¿Quieres que se reorganice el espacio central del barrio, aunque esto implique reducir la cancha de balonmano? SI/NO/Blanco





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Boto-orri edo papeleta bakoitzean erantzun-aukera bakarra jasoko da, bi boto-orri eredu ofizial erabiliko direlarik herri galdeketan.

Udalak eredu ofizialeko boto-orriak eta gutun-azalak jarriko ditu herritarren eskura bozka eskubidea gauzatu ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira eredu ofizialetan.

### **3.- BOZKETA EGUNA, ORDUTEGIA ETA LEKUA**

- Eguna: **2022ko abenduaren 17a, larunbata**
- Ordua: 10:00etatik 20:00etara
- Lekua: Santueneako Kultur Elkarte (mahai 1)

\* Aurretiatzko bozka egikaritzeko aukera izango da:

- Eguna: **2022ko abenduaren 13a, asteartea**
- Ordua: 09:00tatik 14:00ak arte eta 16:00tatik 20:00ak arte
- Lekua: Udaletxea (Idazkaritza) goizez/ Santuenean arratsaldez

### **4.- MAHAIA ETA HAUTESLEKUA**

Hautesleku bakarra egongo da eta bertan mahai bat eratuko da:

MAHAIA	LETRAK	LEKUA
1	A-Z	Santueneako Kultur Elkarte

Mahai eta hauteslekuaren zerrenda herri galdeketaren deialdia egiten den biharamunetik kontatzen hasita 6. egunean iragarki oholean ezarriko da ikusgai herritarrentzat. Hurrengo 6 egunetan, hautesleek mugatze horren aurka erreklamazioa aurkez dezakete Alkatetzaren aurrean, eta organo horrek erabaki irmoa hartuko du 5 egunen barruan. Jarraian behin betiko zerrenda iragarki oholean argitaratuko da.

### **5.- ZENTSUA ETA BOZKATZEKO ESKUBIDEA**

Zentsua osatzeko udal erroldatik ateratako datu eguneratuak erabiliko dira.

Bozkatzeko eskubidea izango dute, herri galdeketa gauzatuko den unean Santuenea auzoan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiek, betiere 2022ko urriaren 15a edo lehenagotik Santuenean erroldatuak badaude.

Beraz prozesu honetan parte hartu nahi dutenek bi baldintza hauek bete beharko dituzte:

\* 2006ko abenduaren 17an edo lehenago jaioa izatea

\* Santuenean 2022ko urriaren 15a edo lehenagotik erroldaturik egotea.

Herri galdeketaren deialdiaren biharamunetik kontatzen hasita 6. egunean iragarki oholean iragarki bat argitaratuko da hautesleei, 8 eguneko epea emanaz, beren erroldako datuak zuzenak direla egiaztatzeko eta hala badagokio Alkatetzaren aurrean datuei buruzko



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

erreklamazioa tartekatzeko aukera azalduz, Alkatetzak hurrengo hiru egunetan ebatzi beharko duelarik. Jarraian, iragarki oholean zentsuaren zuzenketak argitaratuko dira.

## **6.- AURRETIAZKO BOZKA**

Bozkatzeko finkatutako egunetan **halabeharrez bozkatu ezin dutenek** abenduaren 13an 09:00tatik 14:00ak arte eta 16:00tatik 20:00ak arte bozkatzeko aukera izango dute. Botoa udaletxean (Idazkaritzan) goizez eta Santuenean arratsaldean emango da.

Botoa ematera doan pertsonak bere burua identifikatu beharko du izen-abizenekin, argazkia duen jatorrizko honako agiri hauetako baten bidez: nortasun agiria, pasaportearen edo gidabaimena. Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

Udal idazkariak izen-abizenak egiaztatuko ditu. Boto-emailearen izena hautesleen erroldako zerrendan badatorrela egiaztatu ondoren, Udalbatza Plenoak aurretiazko bozka emateko onartutako eskaera-orria bete eta izen-abizenak horretarako prestatuta egongo den boto-emaileen zerrenda zenbakidunean idatzi ondoren, boto-emaileak botoa emango du, gutun-azal itxia udal idazkariari emanaz eta honek, bere aurrean, aurretiazko bozkaren agiria eta botoa aurretiazko bozkarako prestatutako gutun-azal itxian sartuko ditu. Boto-emaileari aurretiazko bozka emateko onartutako eskaera-orriaren kopia udal idazkariaren eginbidearekin emango zaio aurretiaz bozkatu izanaren errezibo gisa.

Aurretiaz bozkatzeko ezarritako egunean emandako bozkek udal idazkariaren zaintzapean egongo dira abenduaren 17ra arte. Udal idazkariak dagokion aurretiazko bozken kopurua idatzita utziko du hautesleen zerrenda jasotzen duen koaderno/zerrendan diligenzia baten bidez.

## **7.- MAHAIAREN OSAKETA**

Mahaia hiru pertsonen osatuko dute: mahaiburua eta bi mahaikide.

Mahaiburua udal idazkaria izango da eta lehen mahaikidea udal langile bat. 2. mahaikidea herritar bolondresen artean zozketa bidez hautatuko da. Hau aukeratzeko 65 urtez azpiko zentsua osatzen duten guztien artean, urriaren 31tik azaroaren 15era, borondatez izena emateko zerrenda irekiko da. Zerrenda horretatik Udalbatza Osoan zozketa bidez aukeratuko dira bozketa egunerako 2. mahaikide titularra eta ordezkoa.

Borondatez 2. mahaikide izateko udalak prestatuko duen eskaera orria bete beharko da.

Titular bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da. Titularrek ezintasunak izanez gero ordezkari hartuko dute parte.

Izendatutako mahaikide guztiei pertsonalki jakinaraziko zaie izendapena, jakinarazpenean bertan adieraziko delarik lan hori betetzeko ezintasunak adierazteko izango duten epea.

Aurreko prozesu guztiaren ondoren behar adina mahaikiderik ez balego, mahaiburuen kasuan bezala, mahaikideak udal idazkariak izendatutako udal langileak izango dira.

Udal talde bakoitzak gehienez 2 apoderatu edo ahalordedun izenda ditzake beren ordezkari bezala. Horretarako Udalbatza Plenoak onartutako "ahalordedunaren izendapen agiria" erabili



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

beharko da eta udal erregistroan sarrera eman beharko zaio urriaren 31tik azaroaren 30era. Ahalordedunak hauteslekuan sar daitezke, bozketaren nondik norakoak azter ditzakete, erreklamazioak eta protestak egin ditzakete eta ziurtagiriak eska ditzakete. Ahalordedunek beren burua identifikatu behar dute, izendapena (ahalorde-agiria) eta nortasun agiria mahaiko kideei erakutsiz. Ahalordedunek ezin dute mahaian bozkatu, mahaiko erroldan egon ezean.

## **8.- KANPAINA**

Kanpainak hamabost egun iraungo du, abenduaren 1eko 00:00 orduan hasiko da eta abenduaren 15ko 24:00 orduan amaituko da.

Udalaren kanpainak izaera instituzionala izango du, besteak beste auzo galdeketaren dataz, galderaz, bozkatzeko prozeduraz, aurretiazko bozkaz, etab. informatuz.

Udalak kanpainarako ekintzak dohainik burutzeko ohiko leku eta lokal publikoak eskainiko ditu. Propagandarako doako leku publikoak udal-panelak izango dira.

- LOKALAK
  - Udal lokala (Santuenea auzoa)
- LEKU PUBLIKOAK
  - Santueneako frontoia
- PANELAK
  - Santueneako parkea

Zerrenda herri galdeketaren deialdia egiten den biharamunetik kontatzen hasita 6. egunean iragarki oholean jarriko da ikusgai. Lokalak eta leku publikoak erabili ahal izateko ohiko eran eskaera egin beharko da aldeztu aurretik.

## **9.- HERRI GALDEKETAREN EGUNEAN MAHAIA ERATU ETA BOZKETA PROZESUA**

Bozketa-egunean **goizeko 09:30ean hauteslekuan egon** beharko dira mahaiburua, mahaikideak eta ordezkariak. Printzipioz mahaia titularrekin eratuko da, bestela berriz, ordezkariak hartuko dute haien lekua.

Mahaia eratu ostean, mahaiburuak zein bi mahaikidek hauteskunde-materiala bertan dagoela egiaztatuko dute.

Bozketa egingo den gelan botoa aukeratzeko kabina bat eta mahai bat jarriko dira. Mahai horren gainean Udalbatza Plenoak onartutako gutun-azal eta boto-orri edo papeleta ofizialak egongo dira.

Beste mahai bat ere izango da, eta bertan egongo da jarrita botoa emateko eskubidea gauzatzeko boto-kutxa eta herri galdeketako agiriak:

- Mahaiari dagokion hautesleen erroldako zerrendaren ale bat, alfabetoaren hurrenkeran. Aurretiazko boto eskubidea gauzatu duten hautesleek marka berezia izango dute bozkatzeko garaian bikoizketarik gertatu ez dadin
- Mahaiaren eraketa-akta



Usturbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Mahaiaren boto-zenbaketaren akta
- Mahaiaren bilkura-akta
- Boto-emaielen zerrenda zenbakiduna (botoa eman duten hautesleen izenak jasotzeko)
- Izendatutako ahalordeen zerrenda
- Aurretiazko bozka eskubidea egikaritu dutenen zerrenda

Mahaia eratu ostean, *“mahaiaren eraketa-akta”* beteko da, mahaiburuak eta bi mahaikidek sinatuko dute. Aktaren kopia bana emango zaie udal taldeei (kopia bakarra taldeko), eskatzen baldin badute.

### **Goizeko 10:00etan bozketari ekingo zaio.**

Botoa ematera doan pertsonak bere burua identifikatu beharko du izen-abizenekin, argazkia duen jatorrizko honako agiri hauekiko baten bidez: nortasun agiria, pasaportearen edo gidabaimena. Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

Mahaia hauteslearen izen-abizenak egiaztatuko ditu. Boto-emaielen izena hautesleen erroldako zerrendan badatorrela egiaztatu ondoren, aldeztatik botoa emateko aukera ez duela egikaritu egiaztatu ondoren, aipatu zentsoko zerrendan izena marratu edo azpimarratu ondoren eta haren izen-abizenak horretarako prestatuta egongo den boto-emaielen zerrenda zenbakidunean idatzi ondoren, boto-emaiela botoa emango du, gutun-azal itxia mahaiburuari eman eta hark boto-kutxan sartuz.

**Arratsaldeko 20:00etan, hauteskunde-mahaia itxi egingo da.** Hauteslekuan oraindik botoa eman ez duen hautesleren bat geratzen bada, botoa ematen utziko zaio.

Jarraian, mahaiburuak aurretiazko bozka eman dutenen bozka sartuko ditu boto-kutxan.

Horretarako banan-banan irekiko dira mahaiburuari bidalitako gutun-azalak eta egiaztatuko da barnean dakartela aurretiazko bozka emateko eskaera-orria udal idazkariaren eginbidearekin eta bozka bera. Boto-orria duen gutun-azala ez da ireki behar.

Aurretiazko bozka emateko eskaera-orria udal idazkariaren eginbidearekin falta bada, botoa ezin da baliotun, baliogabe edo zurizat hartu, ezin delako boto-emaiela kontuan hartu, eta beraz mahaiburuari bidalitako gutun-azala eta barruan duen dokumentazio guztia suntsitu egin behar da.

Jarraian hauteslea mahaiko erroldan inskribaturik dagoela egiaztatu ondoren eta bere izen-abizenak boto-emaielen zerrenda zenbakidunean apuntatu ondoren, bozkatzeko gutun-azala boto-kutxan sartuko da.

Ondoren, mahaikoak mahai horretako hautesleen zerrendan ageri badira botoa eman ahal izango dute, beste hautesle guztien kasuan bezala beren izen-abizenak boto-emaielen zerrenda zenbakidunean apuntatuz.

Amaitzeko, mahaikideek boto-emaielen zerrenda zenbakiduna sinatuko dute (orri bakoitzaren ertzean eta idatzitako azken izenaren azpian).

### **10.- BOTO KONTAKETA**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

\* **Arratsaldeko 20:00etan**, arestian aipatu bezala, bozka aurretiaz eman dutenen gutun-azalak boto-kutxan sartu ostean eta, hala badagokio, egun horretako mahaikideek bozkatu ondoren, bozketa amaitutzat emango da eta berehala boto zenbaketari ekingo zaio.

\* Boto-zenbaketa jendaurreko ekitaldia da, eta ezin da gelditu harik eta boto guztiak zenbatu arte. Mahaiburuak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo nahasteak eragiten dituzten pertsonak.

\* Mahaiburuak boto-kutxa irekiko du eta banan-banan gutun-azalak atera eta ireki ondoren, kontaketari ekingo zaio.

\* Irekitako gutun-azalak gorde egin behar dira, berriz zenbatu ahal izateko eta bide batez egiaztatu ahal izateko boto-kutxatik ateratako gutun-azalen kopurua eta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean jaso diren boto-emaileen kopurua bat datozela.

\* Gutun-azalak eta papeletak aztertzean, erantzun-aukera bakoitzaren aldeko boto baliiodunez gainera, boto zuriak eta boto baliogabeak ere aurki daitezke. Boto horiek ere kontuan hartu behar dira, kontaketa egiteko zein bozketaren emaitza zehazteko.

\* Boto baliogabeak izango dira eredu ofizialaz besteko gutun-azal edo papeleta bidez emandako botoak; aldatuta dauden gutun-azaletan emandako botoak; aldaketaren bat duten papeletak (zirriborroak edo oharrak idatzita dituzten papeletak, hautsirik edo urraturik dauden papeletak); gutun-azalik gabeko papeletak eta gutun-azal berean papeleta desberdinak baldin badaude [papeleta guztiak erantzun-aukera berdinekoak badira, boto baliiodun bakarra kontatuko da].

\* Gutun-azal hutsa boto zuritzat joko da.

\* Boto-zenbaketaren aurka protestarik izanez gero, mahaiaik gehiengoz hartuko du erabakia.

\* Papeletak suntsitu egingo dira. Hala ere, ez dira suntsitu behar honako papeleta hauek: boto baliogabeak eta erreklamazioen baten xede izan direnak. Kasu hauetan, mahaiko kideek sinatu egingo dituzte papeleta horiek eta bilkura-aktari erantsiko zaizkio (boto-zenbaketa amaitu eta akta egiten denean).

\* Boto-kontakteta amaitu ondoren, mahaiburuak bozketaren emaitza aditzera emango du, eta “mahaiko boto-zenbaketaren akta” egin behar da, mahaiburuak eta bi mahaikidek sinatuko dutelarik. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Erroldatutako hautesleen kopurua (hautesle-erroldako zerrenda ziurtatuan ageri dena)
- Boto-emaileen kopurua
- Boto zurien kopurua
- Boto baliogabeen kopurua
- Erantzun bakoitzak lortu dituen botoen kopurua

\* Ondoren, “mahaiko bilkura-akta” egin eta sinatuko da. Aurreko ataleko datuak jasotzeaz gain, erreklamazioak, kexak eta gorabeherak jasotzeko atal berezia izango duelarik.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

\* Udal idazkariak guztizko emaitzak jasotzen dituen ziurtagiria egingo du. Momentu horretan plazaratu ahal izango dira behin betiko emaitzak.

\* Prozesuan erabilitako zentsua eta boto-emaileen koaderno/zerrenda udal idazkariaren esku geratuko dira, eta hark, boto-kontaketa egin eta 15 egun baliodun igaro ondoren, suntsitu egingo ditu. Boto baliogabeak ere, mahaiburu eta mahaikideek izenpetu ostean, udal idazkariaren esku geratuko dira eta hark epe berean suntsitu egingo ditu.

### **11.- BOZKETAREN EMAITZAREN ONDORIOAK**

Auzo galdeketa emaitzak bozketa egunean bertan plazaratuko dira.

Udalak kontsultaren emaitza errespetatzeko konpromezua hartzen du, dagozkion erabakiak hartuta.

### **12.- AURREKONTUA**

Auzo kontsultaren antolakuntzan sortutako gastuak horretarako ezarritako partidatik bideratuko dira.

### **ERANSKINAK**

- a) Boto-orria
- b) Aurretiazko bozkaren agiria
- c) Boto-emaileen zenbakitutako zerrenda
- d) Mahaiaren eraketa-akta
- e) Mahaiaren bilkura-akta
- f) Mahaiaren boto-zenbaketaren akta"

Guzti hau ikusirik, Antolakuntza Batzordeak, 2022ko urriaren 18an egindako bilkuran, aho batez, Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Josune Urkola eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Usurbilgo Udalbatzak Santueneako auzo taldeak proposatutako galdera onartzea, zehazki honako hau:

Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar badira ere? BAI/EZ/Zuri  
¿Quieres que se reorganice el espacio central del barrio, aunque esto implique reducir la cancha de balonmano? SI/NO/Blanco

**Bigarrena.-** Santueneako auzo galdeketa bideratzeko zehaztu den prozedura administratiboa onartzea.

**Hirugarrena.-** Galdeketa erabiliko diren boto-orri eta gainerako agiri ofizialak onartzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

**Laugarrena.-** Erabaki hau Santueneko auzo taldeari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **7.- UGARTONDOKO TXIRIKORDA ERAIKINEAN BELAUNALDIARTEKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEN BAREMAZIO ETA ESLEIPEN PROZEDURA ERREGELAMENDUA ONTZAT EMATEA.**

Alkateak azalpenak eman ditu eta adierazi du gaurko puntu hau Txirikorda gorpuzten jarraitzeko eta martxan jartzeko beste urrats garrantzitsu bat dela.

Txirikordaren gauzatze ibilbide honetan bi bide paralelo aurrera eramaten ari direla esan du, batetik, hirigintza ikuspegitik obrak aurrera doazela eta 2023ko aurrekontuetan Txirikorda ekipatzeko partida bat sartuko dela esan du eta, bestetik, prozesu soziala ere abiatuta dagoela zehaztu du.

Prozesu sozial horren barruan bertara bizitzera joan ahal izateko Txirikordaren erabilera arautuko duen ordenantza bat osatzea beharrezkoa ikusten dela esan du.

Ordenantza honetan nagusiki bi gauza arautzen direla esan du, batetik, zeintzuk diren kolektiboak eta kolektibo bakoitzerako sarrera baldintzak zeintzuk diren eta, bestetik, etxebizitza horiek esleitzeko modua.

Jarraian, erregelamenduaren eduki nagusiak aipatu ditu.

Erregelamendua onartu ondoren, 30 egunez jendaurrean jarriko dela esan du, eta ondoren behin betiko onartu ondoren, Udala etxeak esleitzeko moduan egongo litzatekeela esan du. Urtarrila amaiera alderako guztia martxan jartzea aurreikusten dutela aipatu du.

Txirikordako kontratuak noiz sinatuko diren eta giltzak noiz entregatuko diren galderaren aurrean, garrantzitsua ikusi dutela dio bigarren fase bat irekitzea. Hau da, Txirikordaren ezaugarriak ikusita, esleipendunek elkar ezagutu behar dutela, taldea kohesionatu egin behar dela, bizikidetza kolektibo eta belaunaldiartekoa nola egin behar duten beraien artean erabaki behar dutela, etab. Behin guzti hauek adostuta, horiek ere ordenantza batean jaso beharko direla esan du.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Behin aipatutako prozesua eginda esleipendunekin kontratuak sinatuko direla zehaztu du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2022-0156

## **Aurrekariak**

Txirikorda Usurbilgo Udalak bultzatu duen belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren proiektua da. Zuzkidura etxebizitzak dira, eta bi kolektibori zuzenduta dago proiektua: 18 eta 30 urte bitarteko gazteak, eta 65 urtetik gorako pertsonak edo unitateak. Bi kolektibo hauetako pertsonen alokairuan bizitzeko aukera emango die eraikinak, eta beraien artean harremantzeko eredu berri bat sustatu nahi da. Txirikorda, bestalde, lantzen ari den Usurbilgo Zaintza ekosisteman txertatuko litzateke.

Zuzkidura etxebizitzak alokairuan esleitu ahal izateko, prozedura arautuko duen erregelamendua landu da.

Idazkaritzak lege txostena eta prozedura proposamena osatu ditu 2022ko urriaren 13ko datarekin.

Jarraian jasotzen da etxebizitza komunitarioen baremazio eta esleipen prozedura erregelamendu proposamena, hasieraz onartu ahal izateko:

### **UGARTONDOKO TXIRIKORDA ERAIKINEAN BELAUNALDIARTEKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEN BAREMAZIO ETA ESLEIPEN PROZEDURA ERREGELAMENDUA**

#### **1. Xedea.**

Araudi honen xedea Ugartondoko Txirikorda eraikinean belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioen baremazio eta esleipen prozedura zehaztea da.

I eranskinean ekipamendua osatzen duten etxebizitzak zerrendatu dira, 1etik 16 zenbakira, bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz. Sei (6) etxebizitza bi logelatakoak dira (A mota), eta hamar (10) logela bakarrekoak (B mota).

Bi kolektibori zuzendutako zuzkidura etxebizitzak dira arautuak.

- I Taldea: 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- II Taldea: 65 urtetik gorako pertsonak

Kolektibo bakoitzari 8 etxebizitza eskainiko zaizkio, 3 bi logelakoak eta 5 batekoak. Hasiera baten bi kolektiboetako ordezkarien batekin beteko ez balitz, 3 etxebizitzako erreserba utziko litzaioke aurreragoko beharretarako. Gainontzekoak beste kolektiboko zerrenda handituko dute.

Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 5.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, «etxebizitza sozialak izango dira lege honetan babes publikoko etxebizitza gisa definitutakoak nahiz zuzkidura-bizitokiak, alde batera utzita eraikuntza berrikoak edo birgaituak diren edo bitartekotza edo lagapeneko gizarte- programen bitartez lortu diren».

#### **2. Zuzkidura etxebizitzak babesteko eta lagatzeko erregimena.**

Araudi honen xede diren bizitegi baliabideak etxebizitza sozialtzat hartzen dira adierazitako ondorioetarako. Lagatzeko era errentamendua izango da.





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Errentamendu kontratuan zehaztuko da eurotan ordaindu beharreko kanonaren zenbatekoa batetik, eta egin beharreko lan komunitarioa bestetik.

Zuzkidura etxebizitzaren kontsumo gastu guztiak errentarien kargu izango dira. Txirikorda Komunitatean sortutako gastuak ere komunitateko kideek ordainduko dituzte. Aipatu gastu horien banaketa nola egin Txirikordako funtzionamendu erregelamenduan zehaztuko da.

Ordaindu beharreko kanonari dagokionez, Babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzko 2022ko ekainaren 30eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduan izango da kontuan, zehazki zuzkidura bizitokiak okupatzeagatik hileko kanona kalkulatzeko 21 eta 22 artikuluetan jasotakoak (edo bere kasuan agindu hori eguneratu edo ordezkatzan duten erreferentziak). Horrela, aipatu artikuluen baitan:

Logela bakarreko zuzkidura-bizitokiak (B mota) okupatzeagatik ordaindu beharreko hileko kanona honako hau izango da:

- 3.000 eurotik gorako eta gehienez 9.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza unitateak: 90 euro
- 9.000 eurotik gorako eta gehienez 15.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 150 euro.
- 15.000 eurotik gorako eta gehienez 21.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 200 euro.
- 21.000 eurotik gorako eta gehienez 25.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 250 euro.
- 25.000 eurotik gorako eta gehienez 35.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 300 euro.
- 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 350 euro.

Bi logelako zuzkidura-bizitokiak (A mota) okupatzeagatik ordaindu beharreko hileko kanona honako hau izango da:

- 3.000 eurotik gorako eta gehienez 9.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza unitateak: 120 euro
- Gehienez 15.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 180 euro.
- 15.000 eurotik gorako eta gehienez 21.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 240 euro.
- 21.000 eurotik gorako eta gehienez 25.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 300 euro.
- 25.000 eurotik gorako eta gehienez 35.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 360 euro.
- 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 420 euro.

Horretaz gain, bizikide bakoitzak kontratuan zehaztuko den lan komunitarioa egin beharko du. Lan komunitariori lotutakoak Txirikordako funtzionamendu erregelamenduan zehaztu eta arautuko dira.

### 3. Esleitzeko era eta epeak

Zuzkidura etxebizitzak esleitzeko bi era izango dira, taldearen arabera.

- I taldea: esleipena zozketa bidez egingo da.

Errentamendu kontratuak gehienez 5 urtetako iraupena izango du sinatzen den egunetik hasita, eta ez da luzagarri izango.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- II taldea: esleipena gizarte zerbitzuek egingo duten baremazio bidez egingo da.

Errentamendu kontratuak gehienez 5 urteko iraupena izango du, eta udaleko gizarte zerbitzuek emango duten txostenaren baitan kontratua luzatzeko aukera izango da.

#### 4. Onuradun izateko betekizunak

Esleipen prozeduran parte hartu ahal izango dute:

- Usurbilgo udalerrian erroldatuta daudenak edo Donostiako udalerrian erroldatuta daudenak, Zubietako egoiliarra izanik.
- Usurbilen etenik gabe erroldatuta egotea, egoiliar izanik, gutxienez azken 2 urteetan, edota, hala izan ezean, azken 15 urteetan 8 urtez erroldatuta egotea, beti ere eskaerak egiteko ireki den datatik kontatzen hasita.
- Edo Donostiako udalerrian erroldatuta egonik ere, etenik gabe Zubietako egoiliar izan izana gutxienez azken 2 urteetan, edota, hala izan ezean, azken 15 urteetan 8 urtez Zubietako egoiliarra izatea, beti ere eskaerak egiteko ireki den datatik aurrera.

Esleipendunek pertsona fisiko edo bizikidetzat unitate izan beharko dute.

Bizikidetzat unitatezat hartzen da etxe berean bizi diren edo biziko diren bi pertsonaren edo gehiagoren lotura, ezkontza bidezkoa edo ezkontza harremanaren antzeko besteren baten bidezkoa, baita adopzio bidezkoa edo hirugarren mailarainoko odol ahaidetasunaren eta bigarren mailarainoko ezkontza ahaidetasunaren ondoriozkoa ere. Aipatu loturarik eduki gabe bizikidetzat unitate gisa aurkeztu daitezke bestelako unitateak ere.

Bizikidetzat unitatea osatzen duten adinez nagusiek kontratuan titulartasun partekatua izango dute, eta diru sarrera guztiak hartuko dira kontuan kanonaren kalkulua zehazteko.

##### 4.1 I Taldea: 18-30 urte tartekoak

- Gutxienez 18 urte eta gehienez 30 urteko adina izatea, eskariak aurkezteko deialdiaren bukaera datan, errentamendu kontratua sinatzeko unera arte.
- Zerga ordainketan edo bestelako betebeharretan egunean egotea Usurbilgo Udalean.
- Etxebizitarik ez izatea, ez jabetzan, ez usufuktuan. (2012ko urriaren 15eko Aginduko baldintzatan)

##### 4.2. II Taldea: 65 urtetik gorakoak

- Eskariak aurkezteko deialdiaren bukaera datan gutxienez 65 urte izatea
- Pentsioduna izatea
- Etxebizitarik ez izatea, ez jabetzan, ez usufuktuan. (2012ko urriaren 15eko Aginduko baldintzatan)
  - o Etxebizitza izanez gero, gehienez urtebeteko epean etxebizitza alokairuan jartzeko (parke publikoan) konpromezua hartu beharko da.
- Baldintza ekonomikoak:

Etxebizitzak eskuratzeko aukera izateko ahalmen ekonomikoaren baldintzak betetzen direla zehazteko irizpideak indarrean dagoen autonomia erkidegoko araudian ezarritakoak izango dira. Ildo horretan, interesdunek amaitutako errenta aitorenaren azken kanpainari dagozkion urteko diru sarrera haztatuak egiaztatu behar dituzte.

Zuzkidura-bizilekuen alokairurako dirusarrerak: 3.000 eta 39.000 euro bitartean

#### 5. Eskatzaileak baztertzea

Aurreko zenbakian ezarritako betekizunetakoren bat bete tzen ez dutela egiaztatu delako baztertuta gera



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

daitezkeen pertsonenez edo bizikidetzaren unitateez gain, prozeduratik baztertuta geratuko dira pertsona edo bizikidetzaren unitate hauek ere:

- Usurbilgo Udalaren etxebizitza errentamendu kontratuen ondorio diren betebeharrak bete gabe dituztenak, bai ordainketa betebeharrak bai bestelakoak, kontratuak azkenduta egon ala ez.
- Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik zehapen bat ezarri izanaren ondorioz desgaitutako pertsonak.

## 6. Baremazioan puntuak esleitzea

Adinekoentzako apartamentu zerbitzuan sartzeko hurrengo irizpideak izango dira kontuan:

Aldagaiak	Puntuak
1 Etxebizitza	10
2 Egoera pertsonala/sozio-familiarra	10
3 Parte hartze komunitarioa	10
4 Adina	5
5 Mendekotasuna	5
6 Egoera ekonomikoa	10
7 Herrian errotzea	5
Guztira	55

### 1. Aldagaia: **Etxebizitza**

Ohiko etxebizitzan sartzea 10 puntu  
mugatzan duten oztopo  
arkitektonikoak, konpondu **ezin**  
direnean.:

Ohiko etxebizitzan sartzea 0 puntu  
mugatzan duten oztopo  
arkitektonikoak, konpondu  
daitezkeenean

### 2. Aldagaia: **Egoera pertsonala/sozio-familiarra**

Bakarrik bizi da (nahi gabeko bakardadea) 10 puntu

Familiarekin bizi da baina etxea utzi behar du 5 puntu

### 3. Aldagaia: **Parte hartze komunitarioa**

Pertsonak parte hartzen du 0 puntu  
ohikotasunez herri ekimen edo eta  
talde ekintzetan, esaterako,  
adinekoen  
elkartean, soinketa, ikastaroak...  
edota parte-hartze ez formaletan,  
kuadrillan, jaietan... (gutxienez  
astean behin)

Pertsonak ez du parte hartzen 5 puntu  
ohikotasunez goian azaldutako  
talde edo ekintzetan, baina  
hurbileko lagunak ditu eta  
beraiekin aisialdia partekatzen du



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

noizean behin  
Pertsona isolamendu egoeran 10 puntu  
dago; ekintza edo aisialdi unerik  
ez du partekatu beste pertsona  
edo taldeekin azken urtean, edota  
herritarrengandik  
baztertua/ezikusia da.

4. Aldagaia: **Adina**

65etik – 70era	5 puntu
71tik – 75era	3 puntu
76tik – 80ra	1 puntu
>80	0 puntu

5. Aldagaia: **Mendekotasuna**

1etik – 15era	5 puntu
16tik – 25era	3 puntu
26tik – 35era	1 puntu
36tik gora	0 puntu

6. Aldagaia: **Egoera ekonomikoa**

Atal honetan kontzeptu hauek puntuatuko dira:  
- Hileko diru sarrerak (edozein kontzeptugatik  
jasotzen diren diru sarrerak: pentsioak,  
dirulaguntzak, bankuko etekinak, errentak,  
etab...)  
- Ondasun higigarriak eta higiezinak

Hileko diru sarrerak pertsona batentzako (14 ordainsari)

LGSren $\leq$ % 60	5 puntu
LGSren $>$ %60 $\leq$ %100	4 puntu
LGSren $>$ %100 $\leq$ %150	3 puntu
LGSren $>$ %150 $\leq$ %200	2 puntu
LGSren $>$ %200	0 puntu

Ondasunak:

$\leq$ 3.000€	5 puntu
$>$ 3.000€ $\leq$ 6.000€	4 puntu
$>$ 6.000€ $\leq$ 10.000€	3 puntu
$>$ 10.000€ $\leq$ 15.000€	2 puntu
$>$ 15.000€	0 puntu

Hileko diru sarrerak senar-emazte, ezkontide  
(edo izatezko bikoteak) kasuan (14 ordainsari)

LGSren $\leq$ % 85	5 puntu
LGSren $>$ %85 $\leq$ %125	4 puntu
LGSren $>$ %125 $\leq$ %175	3 puntu
LGSren $>$ %175 $\leq$ %225	2 puntu
LGSren $>$ %225	0 puntu

Ondasunak:

$\leq$ 6.000€	5 puntu
$>$ 6.000€ $\leq$ 10.000€	4 puntu
10.000€ $\leq$ 15.000€	3 puntu
$>$ 15.000€ $\leq$ 20.000€	2 puntu
$>$ 20.000€	0 puntu



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

#### 7. Aldagaia: **Errotzea**

- Usurbilen bizi lekua izatea edo 5 puntu izana 20 urte baino gehiagoz
- Usurbilen bizi lekua izatea edo 3 puntu izana 10 eta 20 urte bitartean
- Usurbilen bizi lekua izatea edo 1 puntu izana 5 eta 10 urte bitartean

IRIZPEN PROFESIONALA ALDEKOA IZATEKO GUTXIENEZ 22 PUNTU BEHAR DA (% 40)

#### 7. **Eskaerak aurkeztea**

Esleipen prozeduratan parte hartu ahal izateko, interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute, araudi honetako II eta III eranskinetako eskabide erdua osatuz.

Eskaera udalera bertaratu edo telematikoki aurkeztu daiteke.

- Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g).
- Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako bidez. ([www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)).

Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira

Usurbilgo Udalak, Nisae Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eska tzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Usurbilgo Udalak araudi honen 4. atalean (onuradun izateko betekizunak) eta II eta III eranskin gisa onartzen diren eskaera orrietan zehaztutako baldintzak egiaztatuko ditu Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Bestalde, jasotako informazioaren baitan zalantza edo kontraesanak baleude, Udalak dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio interesatuari.

Lehenengo esleipen prozedura abiatzeko, alkateak deialdia eginaz ebazpena emango du, eta hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hogei (20) egun natural izango dituzte interesatuek eskaerak aurkezteko.

Lehenengo prozedura amaituta, I taldeko prozedura berrietarako deialdietarako alkateak berariaz ebazpena emango du. II taldeko interesatuak aldiz edozein momentutan aurkeztu ahal izango dute eskaera; era horretara baremazio bidezko itxaron zerrendan sartu ahal izango dira.

#### 8. **Behin behineko zerrendak, baremazioak, eta alegazioak aurkezteko epeak**

Udalak eskaerak aztertu eta eskatzaileek betekizunak betetzen dituztela egiaztatuko du; alkateak ebazpena emango du, onartu eta baztertuen behin behineko bi zerrenda osatuz:

- I Taldea: onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda
- II Taldea: onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda, eta Udaleko gizarte zerbitzuek egindako behin behineko baremazioa. (Baremazioa araudi honetako 5. ataleko irizpideak kontuan hartuta egingo)



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

da)

Baztertutako pertsonen zerrendan baztertzeko arrazoia azalduko da.  
Bi zerrendak Udalaren iragarki taulan eta udal web orrian jarriko dira jendaurrean.  
Behin behineko zerrenda hauen aurka alegazioak aurkez daitezke; horretarako hamar (10) egun naturaleko epea izango dute interesatuek.

### **9. Behin betiko zerrendak**

Aurkeztutako alegazioak aztertu eta ebatzi ondoren, alkatetza dekretuz honako bi zerrenda osatuko dira:

- I Taldea: onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda.
- II Taldea: onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda, eta Udaleko gizarte zerbitzuek egindako behin betiko baremazioa.

Bi zerrendak Udalaren iragarki taulan eta udal web orrian jarriko dira, eta interesatuei jakinaraziko zaie.  
Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

### **10. Esleitzeko prozedura. Zozketa eta baremazioa.**

Talde bakoitzak bere esleipen prozedura du:

- I Taldea: Behin betiko zerrendak kontuan hartuta, eskatzaileen hurrenkera zozketa bidez erabakiko da.

Zozketa publikoa izango da; Udalak behin betiko zerrendak argitaratzen dituen zehaztu eta jakinaraziko du data eta zozketa tokia.

Zozketa era honetan egingo da: Lehenengo A motako (2 logela) eskatzaileen artean. Bigarren B motako (logela bakarra) eskatzaileen artean. Batean edo bestean etxebizitza guztiak esleitu ez balira, eskatzaileak dauden zerrendatik jarraituko litzateke osaketa, dagokion hurrenkeran.

- II Taldea: baremazioa. Hurrenkera Udaleko gizarte zerbitzuek egindako baremazioan lortutako puntuen arabera ezarriko da.

Etxebizitza motari dagokionez (A- 2 logela- edo B-logela bakarra-), eskaeren arabera bideratuko da lehenengo, eta eskatzaileen egoera aztertuta puntuazioaren arabera. Behar bereziak gizarte zerbitzuen txostenaren baitan ebatziko dira.

### **11. Hautaketa eta emaitzak.**

Talde bakoitzeko zerrenda bana osatuko da, zozketa eta baremaziotik eratorritako hurrenkera, eta esleitutako etxebizitza adieraz; etxebizitzarik esleitu ez zaienekin itxarote zerrenda osatuko da (12.atalean jasoko dena kontuan hartuta).

Behin behineko esleipen zerrenda alkatetza dekretuz onartuta, Udaleko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira.

Emitza honen aurka alegazioak aurkez daitezke; horretarako hamar (10) egun naturaleko epea izango dute interesatuek argitarapenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Alegazioak aztertuta, behin betiko esleipen zerrenda onartuko dira alkatetza dekretuz.

Zerrendak Udalaren iragarki taulan eta udal web orrian jarriko dira, eta interesatuei jakinaraziko zaie.

Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

Zerrendetan hautatutako pertsona gisa sartzeak ez du esan nahi eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen direnik, horiek alokairu kontratuak sinatu aurretik egiaztatuko dira eta. Hautatutako pertsonak behin behineko esleipendun izaera izango dute kontratua sinatu bitarte. Behin behineko esleipendunek Txirikordako funtzionamendu araudiaren lanketa prozesuan parte hartu beharko dute; kontratua sinatu ahal izateko, parte hartzea egiaztatuko Udalak

### **12. Itxarote zerrendak**

Esleipenean ezarritako ordenari jarraiki, gerora izan litezkeen kasuetan sortuko diren hutsuneak betetzeko itxarote zerrendak egingo dira. Kasu horietan guztietan hutsunea zein taldetan gertatu den kontuan izanik beteko dira esleipendunik gabe geratu diren etxebizitzak.

- I Taldeko itxarote zerrenda agortuko baltiz, alkatetza dekretuz eskaerak aurkezteko deialdi berria zabalduko



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

litzateke.

II Taldeko itxarote zerrenda urtero berrituko da, urrian, tarte horretan izandako eskaerak eta datu berriak kontuan izanda.

### **13. Behin behineko esleipenaren ondorengo betebeharrak**

Behin-behineko pertsona esleipendunek etxebizitza alokatzeko kontratua sinatu arte eta errentari diren bitartean mantendu beharko dituzte araudi honetan jasotako baldintza eta betekizunak.

Alokatzeko kontratua sinatzeko tramitea egin ondoren, behin-behineko pertsona esleipendunak behin betikoak izango dira. Ildo horretan, nahitaez titularkide izan behar duten bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek, oinarri hauen 4. puntuan adierazitakoaren arabera, errentamendu kontratua sinatu behar dute.

### **14. Uko egitea**

Norbaitek espresuki edo isilbidez uko eginez gero esleipenari, edo behin behineko esleipenduna justifikaziorik gabe kontratua sinatzera agertzen ez bada, pertsona edo unitate horrek atzera egin eta uko egin duela ulertuko da. Kasu horretan pertsona edo unitate horri zegokion etxebizitza libre geldituko da eta, itxaron-zerrendaren hurrenkerari eta taldeari jarraiki, dagokion pertsonari esleituko zaio.

### **15. Datuak eta baremazioa berritzea**

Baremazioari lotutako II taldeko esleipendunen itxarote zerrenda urtean behin berrituko da tarte horretan izandako eskaerak kontuan hartuta.

Bestalde, kanonaren kalkulua ere bizikidetzaren unitateko kideen aurreko urteko diru sarrerak kontuan hartuta ber kalkulatu da kontratuak dirauen bitartean, urtero.

Udalak, arau honetako 6. atalean adierazitako eskumenak baliatuz, datu horiek (kontratuaren sinatzaileenak eta II taldeko itxarote zerrendan daudenenak) eskuratu ahal izango ditu NISAE nodoaren bitartez. Edonola ere interesatuak beren egoeran izan dezaketen eta dagokigunerako interesa duen edozein aldaketa jakinarazi beharko diote Udalari.

### **16. Kanona zehaztea. Kontratua eta fidantza**

Udalak berriazko ebazpen bidez zehaztuko du esleipendun bakoitzari dagokion kanona, eta egin beharreko lan komunitarioa.

Lan komunitarioari lotutako Txirikordako funtzionamendu erregelamenduan zehaztu eta arautuko dira, eta beraz erregelamendu hori indarrean egon bitarte ezingo da kontraturik sinatu.

1go esleipenak eginda, behin-behineko esleipendunak Txirikordako funtzionamendu araudia osatzeko prozesuan parte hartuko du. Behin prozesu hori amaituta, eta araudia behin betiko onartuta, hamar egun naturaleko epean adjudikazioa formalki onartu beharko du eta adierazten den epealdian kontratua formalizatzen konprometitu.

Hurrengo esleipenarako, esleipendunak, bere aldeko adjudikazioa jakinarazten denetik kontaktzen hasi eta hamar egun naturaleko epean adjudikazioa formalki onartu beharko du eta adierazten den epealdian kontratua formalizatzen konprometitu.

Lehen ordainketarekin batera, esleipendunak bermea jarri beharko du. Berme horren zenbatekoa hileko kanona bestekoa izango da.

### **17. Ordezko araudia**

Arau honetan aurreikusten ez diren kasuetarako, etxebizitza sozialei buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

#### **Xedapen gehigarria. Izaera pertsonaleko datuen babesa.**

3/2018 Lege Organikoari, abenduaren 5koa, Datuen Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari dagokionari jarraiki, datuen tratamenduak helburu izango du zuzkidura etxebizitzaren eskatzaileen zein esleipendunen tramitea gauzatzeko, baita esleipenetan, trukeetan eta etxebizitzaren aldaketak egitea ere.

II Taldeko eskatzaileen identifikazioa espedientean jasoko den zenbaki bidez egingo da; egingo diren argitalpenetan zenbaki hori erabiliko da, eta ez da bestelako identifikazio daturik argitaratuko.

Datuen tratamendua honako legitimazio tituluetan oinarritzen da:

- DBEoren (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra, EBkoa) 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduen arduradunari esleitu tako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat bete tzeko
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- 7/1985 Legearen, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, 25.2.a) artikulua.
- 2/2016 Legearen, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Era- kudeei buruzkoa, 17.1.3 eta 17.1.7 artikulua.
- DBEOren 9.2.b) artikulua: tratamendua beharrezkoa da Lan Zuzenbidearen, segurtasunaren eta gizarte-babesaren ar- loan Arduradunak duen betebeharraren baten edo interesdunaren eskubide baten gauzatzeko edo egikaritzarako, betiere Batasunaren Zuzenbideak baimentzen badu eta hitzarmen kolektiboan aurreikusitako bermeak, oinarritzko eskubideak eta interesdunaren interesak errespetatzeari zuzendutakoak, betetzen badira.

Udalak inprimakian jasotzen diren bereziki babestutako datuak tratatuko ditu –mugikortasun murriztua kasu–, beharrezkoak baitira baremoen bidezko zuzkidura etxebizitzaren esleipenerako. Tratamendu horren baitan, bereziki babestutako datu horiek Usurbilgo Udaleko datu baseetatik zein beste erakunde publiko batzuegandik jasoko dira. Interesdunak aukera dauka informazio transmisio horri aurka egiteko. Aurka eginez gero, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu hizpide ditugun datuak.

Interesdunak eskubidea du Usurbilgo Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko, haren datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatze eskubidea, datuak jaso ziren beharizanetarako jada beharrezkoak ez direnean. Halaber, egoera jakin batzuetan datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere bai. Eskubide horiek datu-tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dira, Usurbilgo Udalean, hain zuzen ere: JM Sagardia z/g, 10170 Usurbil. Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.

Guzti hau ikusirik, Antolakuntza Batzordeak, 2022ko urriaren 18an egindako bilkuran, aho batez, Agurtzane Solaberrieta, Benat Larranaga, Josune Urkola eta Patxi Suarezen aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa.**- Ugartondoko Txirikorda eraikinean belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioen baremazio eta esleipen prozedura oinarriak arautuko duen erregelamendua hasieraz onartzea.

**Bigarrena.**- Erregelamendua jendaurrean jartzea 30 egunetako epean, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia webgunean, iragarki taulan eta ohiko egunkarietan ere argitaratuko da.

**Hirugarrena.**- Jendaurreko epealdian alegaziorik aurkeztuko ez balitz, erregelamendua behin betikoz onartutzat joko da.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

## **8.- 2022. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.**

Beñat Larrañagak puntu honi eta hurrengoari buruzko azalpenak modu orokorrean eman ditu. Irizpenean jasotzen diren moduan proposatzen diren aldaketak aipatu ditu.

Josune Urkolak galdetu du ea sailkapen talde batetik bestera automatikoki pasatzen diren.

Beñat Larrañagak erantzun dio sailkapen talde bakoitzerako sarbide baldintzak ezberdinak direla, titulazioa kasu, eta hauetan baldintzak betetzen direla zehaztu du. Hala ere, aldaketa hauek logika baten baitan egiten direla dio, ardura kontuak tarteko.

Idazkariak adierazi du polizia legea aldatu egin zela eta horren arabera udaltzain guztiak C1era pasatzea aurreikusi zela, gerora errekurtsio asko izan zituela legeak baina azkenean C1era pasatzea jaso zela zehaztu du.

Josune Urkolak galdetu du hutsik uzten diren lanpostu horien kasuan, berriz ateratzen badira lehen lanpostu horietan zeudenek lanpostua galduko dutela.

Beñat Larrañagak erantzun dio lanpostura itzultzeko eskubidea dutela behin prozesua martxan jarri eta hasierako onartuen zerrenda argitaratu arte, hortik aurrera eskubide hori galdu egingo luketela esan du.

Alkateak zehaztu du garrantzitsua dela zehaztea zergatik hartu duten hutsik uztearen erabakia. Denek ikusi dutela dio legealdi honetan arkitekturekin zer gertatu den.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengo onartu dute, honela dio:

“2022ko Lanpostuen zerrenda 2021eko azaroaren 25eko udalbatzan onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2021eko abenduaren 23an.

Ondoren martxoak 17ko Udalbatzak ere aldaketa batzuk onartu zituen.

Orain berriz, hurrengo aldaketak proposatzen dira:

### **1.- ERRENTA ETA ONDARE TEKNIKARIA**

2022ko martxoaren 17an egindako ezohiko udalbatzaren bilkuran 2022ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartu zen, eta besteak beste postu honen sarbide tituluaren kodea



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

aldatu zen. Titulazio berriak aldiz postua administrazio berezitik orokorrera zuzentzea behar du, baina bere unean ez zen egin. Orain hori zuzentzea proposatzen da.

## **2.- UDALTZAINEN SAILKAPEN TALDEA C1 IZATEA**

1/2020 legegintzako dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenaren arabera, oinarrizko eskalako agenteak C1 kategorian egon behar dute (35.2.c artikulua). Orain artean Usurbilgo Udaleko Lanpostuen Zerrendan C1/C2 moduan agertzen ziren, baina Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloarekin kontrastatu ondoren, udaltzain postu guztiak C1-an egon behar dutela baieztatu da, baita behin behineko funtzionarioak direnean ere. 4. xedapen iragankorraren arabera, jadanik karrerako funtzionario direnei ere eragiten die, C1 taldera igarotzen baitira ondorio guztietarako.

## **3.- BRIGADABURUA**

Brigadako lanpostuen kasuan ezohiko egoera bat gertatzen da. Izan ere, brigadaburua C2 taldean dago eta aldiz, lantalde berean dagoen elektrikaria (legezko ikasketa beharngatik, etab.) C1 taldean. Kiroldegiko mantenu arduraduna ere C1 taldean dago. Azken urteetan mahai gainean jarri da brigadaburua C1era igo eta hizkuntza eskakizuna ere 2tik 3ra igotzea. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren (EPOETB) 76. artikulua aurreikusitakoa bete behar da lanpostu bakoitzari dagokion titulazioan. Artikulu horrek kidegoen eta eskalen sailkapena zehazten du, horietan sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera:

- C2: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua
- C1: Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea (edo dagokion adarreko titulua)

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aldeko txostena lortu da 3. HE ezarri ahal izateko eta egun behin-behinekoz postua betetzen duen langileak ere bi betekizunak betetzen ditu. Soldata Maila berdina izango (15. Ordainketa Maila) du baina Lanpostu Maila 11tik 14-ra igo behar zaio C2 taldetik C1 taldera igotzearen ondorioz. Soldata berdina jasoko duen arren, eragina hurrengo hiru urtekoaren balizko sorreran, Elkarkidetzan eta berariazko osagarrian izango du (azken kasu honetan beherantz, izan ere ordainketa maila berdina mantenduz, kopuru gordin berdinarekin, lanpostu maila igotzen denean eragina hori da).

## **4.- KALE GARBIKETAKO OFIZIALARI "C" GIDABAIMENA**

Postu hau 2020ko Enplegu Publikoko Eskaintzan jasota dago eta une honetan C1 edo B (2009ko ekainaren 8a baino lehenagokoa bada) gidabaimena ezarria du. Brigadaburuak gidabaimenei buruz egindako txostenean jasotzen denez, besteak beste, postu horrek C gidabaimena eduki beharko luke lantaldearen funtzionamendurako, brigadako kamioia erabili ahal izateko. Aldaketa honek ez ditu EPE-an jasotako baldintza orokorrak aldatzen, ez eta soldatan eragiten.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

## 5.- OPERARIO LAGUNTZAILE BI POSTU SORTZEA, HORIETATIK BAT DESGAITASUNERA ERRESERBATUA

2022ko maiatzaren 6an Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu zuen: *Enplegu publikoaren behin behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera doan I. Eranskinean jasotakoaren arabera*. Erabaki hori maiatzaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta maiatzaren 26an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen. Bertan, besteak beste, honako hauek jaso ziren:

IZENA	SAILKAPEN TALDEA / AZPITALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	LAN SAIOA	KOPURUA	HE	TXANDA	
Operario Laguntzaile	E	AB	ZB	Murriztua	2	1	Irekia 1	Ezgaitasuna 1

Bi postu hauek ez ziren une hartako Plantila eta Lanpostuen Zerrendan formalki existitzen, urtez urte brigadako lan kargen beharretarako behin behineko funtzionarioen izendapena egiten zen arren. 2022ko apirilaren 1eko Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren ebazpenak ere, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak abian jartzeko orientabideei buruzkoak, zera zioen erreferentziazko posturik gabeko behin-behineko enplegatuei buruz (1.7 puntua): *“2020ko abenduaren 31tik 3 urte atzera erreferentziazko dotaziorik gabe behin behineko moduan lanean aritu diren langileak egon baldin badira egiturazko beharrei erantzunez eta aurrekontu dotazioarekin, hauek ere prozesu honetan sartuko dira. Izendapenaren unean postu zehatzak esleitu behar dira, hutsik dauden bakanteak erabiliz edo postu berriei alta emanez”*. Egonkortzeko Lanpostu Publikoen Eskaintza onartu aurretik postu hauek Lanpostuen Zerrenda eta Plantilan sortzeko denborarik ez zen izan, aurretik Eusko Jaurlaritzako beste zuzenketa eta aldaketa batzuk ere sartu behar izan zirelako. Edonola ere, une horretan ez zen ezinbestekoa eta orain egingo da aldaketa, beti ere prozesuko oinarriak onartu aurretik.

Postuen ezaugarriak aurretik gainerako operario laguntzaileen berdinak izango dira lanpostu maila, ordainketa maila, hizkuntza eskakizuna (HPS-ko txostena eskuratu da), gidabaimena eta funtzioei dagokienean. Aldiz, bereizgarri gisa lanaldia martxotik abendurakoa izatea %100ean eta postu horietako bat ezgaitasunera erreserbatua izatea dute.

### Desgaitasun erreserba

Halakotzat hartuko dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikularen 2. atalean definitutakoak (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak), eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez desgaitasuna modu progresiboan egiaztatzen duten eta hautaketa-prozesuekin bateragarriak direla egiaztatzen dutenak.

### Funtzioen eskuliburua



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Aurretik ere udalak baditu operario laguntzaile postuak, eta hortaz, horien funtzio eta ezaugarri berdinak ezarri dira funtzioen eskuliburuko fitxan.

## 6.- GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN SAILEKO BURUA

Indarrean dagoen lanpostuen zerrendak 4. hizkuntza eskakizuna jasotzen du, baina derrigortasun datarik ez da agertzen. Bere unean, 2018ko abenduaren 20ko udalbatzan Lanpostuen Zerrendan txertatu zenean, hizkuntza eskakizuna ezarri zen baina ez derrigortasun data (postu hau aurretik ere Lanpostuen Zerrendan egon zen hizkuntz eskakizun berarekin eta baita gerora jarraitu zuen programan ere). Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko txostena eskuratu da eta horren arabera derrigortasun data erabakiko data izango da (2022ko urriko udalbatzakoa).

## 7.- EUSKARA TEKNIKARI ETA KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIA SAILEKO ADMINISTRARI ETA ITZULTZAILE FUNTZIOAK BETETZEKO PROGRAMA: PROGRAMATIK TEKNIKARI POSTUA SORTZEA ITZULTZAILE/ADMINISTRARI POSTUA AMORTIZATUZ

Kultura, Euskara eta Gazteriako administrazioa/itzultzailea

2019ko azaroaren 22an erretiroa hartu zuen ordura arte lanpostu hori bete zuen administrari/itzultzaileak. Ezaugarri hauek zituen:

Izena:	Kultura, Euskara eta Gazteriako administrazioa/itzultzailea
Kodea:	7.6
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	C1
Eskala:	Administrazio Orokorra
Azpieskala:	Administrazioa
Titulazioa:	Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea
Lanpostu maila:	13 (Usurbilgo Ordainketa Maila 14)
Berariazko osagarria:	-
Hizkuntz eskakizuna:	4 TG
Arduraduna:	Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko Burua

Postuaren berezitasunak kontuan hartuz eta sailaren beharrak berraztertzeke egoeran izanda, egokitze jo zen euskara teknikari bat izendatzea programa baten bidez eta frogatzen horren ondorioz, postuak zer nolako moldaketa behar zuen erabakitzea. Lanpostuen Zerrendatik ez zen amortizatu eta oraindik hor dirau, baina hutsik.

“Euskara Teknikari eta Kultura, Euskara, Gaztedia saileko administrari eta itzultzaile” Programa 2019ko azaroaren 6ko 2019/0947 dekretuaren bidez “Euskara Teknikari eta Kultura, Euskara, Gaztedia saileko administrari eta itzultzaile programa” sortu eta programa aurrera eramateko Ander Moron Lasa izendatu zen bitarteko funtzionario. Programa hori A2 taldea, 4. HE eta 17. lanpostu mailarekin (Usurbilgo 15. ordainketa maila) sortu zen. Programa honi luzapenak egin



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

zaizkio eta TREBEP-ko 10.1.c) muga kontuan hartuz laister legez duen gehienezko 3 urteko iraupena agortuko du, hain zuzen ere 2022ko azaroaren 5ean.

### Saileko beharrak

Sailaren azterketa bat eskatu zaio Kultura, Euskara eta Gaztedia saileko arduradunari, programa bera eta hutsik dagoen postua baloratu eta hemendik aurrerakoak proposatu ahal izateko. Txosten horren arabera, programa, funtzioei dagokienean, bere horretan egokia dela eta euskarazko 4. hizkuntz eskakizuna (TG, Teknikari Gaitua) ikusten duela proposena.

### Euskara Teknikari, itzultzaile eta Kultura, euskara eta gaztedia saileko administrari postua sortzea

Ondoren jasotako ezaugarriekin postua sortzea proposatzen da:

Izena:	Euskara Teknikari, Itzultzaile eta Kultura, euskara eta gaztedia saileko administraria
Kodea:	7.6
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	A2
Eskala:	Administrazio Berezia
Azpieskala:	Eskala Bereziko Teknikaria
Titulazioa:	Gradu-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea
Lanpostu maila:	17 (Usurbilgo Ordainketa Maila 15)
Berariazko osagarria:	19.530,20 euro
Hizkuntz eskakizuna:	4 (TG)
Arduraduna:	Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko Burua

### Lanpostu berriaren egitekoak (funtzio zerrenda)

Lan hauek burutuko ditu, beti ere, Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko buruaren gidaritzapean:

- Euskara Saileko funtzionamendu egokiaz arduratu, ezarritako helburuei erantzuna emanaz eta horretarako sailera atxikitako baliabide material eta ekonomikoak antolatu, koordinatu eta gainbegiratu.
- Euskara Sailaren urteko kudeaketa-planaren proposamena eta aurrekontu proposamena landu eta horren jarraipena eta kontrola burutu.
- Saitetik bideratzen diren erosketa eta kontratazioetan, arlo teknikoari dagozkion eginbeharrak gauzatu: baldintza teknikoen agiriak prestatu, kontratazio prozeduran aholkularitza teknikoa eskaini, kontratuen jarraipena eta kontrola burutu, gastuen kontrola eraman eta gainbegiratu...
- Euskara arloan azterlanak egitea, planak eta programak diseinatzea, kudeatzea eta ebaluatzea eta arlo hauetan jarduerak sustatzea eta koordinatzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Euskara arloan kide anitzeko organoetan, biltzarretan eta organo aholku-emaileetan parte hartzea edota bideratzea eta Udalak parte hartzen duen erakunde eta elkarteetan udalaren izenean parte hartzea.
- Zerbitzuan sortzen diren euskara gaiei lotutako lanak burutu: Buruntzaldeko planari lotutako egitasmoak, UEMAKoak, Udaleko Euskara Planari lotutako jarraipena, Euskaraldia, Toponimia, hizkuntza kexak...
- Euskararen normalizazio eta erabilpen plangintzaren kudeaketaz eta diseinuaz arduratu, bai udalean zein udalerrian: diseinua, ekintzen lehentasuna, plangintzaren jarraipena...
- Euskararen esparruko gaien lege xedapenak, arautegia eta abarren analisia egin eta ezagutu puntualki eta modu eguneratuan, arduradun politiko eta interesa agertzen dutenei horren berri emanez.
- Udalak eskatzen dituen euskara alorreko dirulaguntzen eskaerak, zuriketak eta eskaeren jarraipena egin.
- Udalak ematen dituen euskara alorreko dirulaguntzen kudeaketa lanak bideratu, txosteena egin...
- Udaleko langileek euskararen erabilera egokiari buruz egindako eskaera eta kontsultei erantzun.
- Euskara arloko kexak (herritarrenak zein udal barrukoak) eta erreklamazioak jaso, izapidetu eta bideratu, UEMArekin elkarlanean.
- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko prozesuetan laguntza eskaini: deialdiaren oinarriak interpretatu, informazio hori langileei jakinarazi, langileen eskabideak bideratu, gaia kudeatu, IVAPeko web orria kontsultatu, azterketen emaitzen jarraipena egin, langileei azterketa ereduak eskuratu, eskabidea betetzen lagundu langileari dagokion dokumentazioa osatuz, eskola eskaerak bideratzeko jarraibidearen informazioa kudeatu...
- Euskara alorreko ordenantzak, arautegiak eta hitzarmenak elaboratzea eta zerbitzuari lotutako arautegiak eta oinarriak sortzea.
- Euskara arloan aholkularitza tekniko ematea eta kontsultei erantzutea.
- Euskara Saileko informazioa bildu, artxibatu eta dokumentazio sistemaz arduratu.
- Sailean antolatzen edota koordinatzen diren jardueren eta programen hedapenez arduratu (eskuorriak, web orria...) bere kasuan, udal komunikazio arduradunarekin koordinatuz.
- Euskara Sailak kudeatzen dituen talde eta erakundeekin bilerak egin modu erregularrean, ekimen guztiak koordinatzeko.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Toponimia arloko kontsultei erantzun.
- Itzulpena lanak egitea:
- Itzulpengintzarekin lotutako kontsultei erantzutea.
- Udaleko zerbitzu ezberdinetan sortutako dokumentazioa itzultzea.
- Kanpotik datozen dokumentuen itzulpenak: herritarrek eskatutakoak edo enpresek eskatutakoak.
- Itzulpen eskabide bakoitzari espedientea ireki, Wordfast aplikazioaren bidez bideratu eta datu-basean jarraipena egin. Gero, urteko balantzea egiteko.
- Itzulpenen bat kanpoko enpresaren batera itzultzera bidali behar denean, prozesu guztiaren jarraipena egitea: espedientatu, aurrekontua eskatu, itzulitakoaren ikuskatze lanak egin, fakturen jarraipena egin, datu-basean sartu...
- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko buruari Udalak ematen dituen aisialdia alorreko dirulaguntzen kudeaketa lanak bideratzen laguntzea.
- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko espedienteen tramitazio administratiboaz arduratu.
- Herritarrei arreta eskaini, bai zuzenean zein telefonoz, kultura, euskara eta gazteria gaiiei buruzko informazioa eman.
- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko artxiboaz arduratu eta mantendu, espedienteak ordenatuz eta dagokion kaxetan sartuz.
- Hala egokitzen denean, kultur agendaren prestaketan administrazio lanak burutu.
- Hala egokitzen denean, kultura agendan administrazio lanak burutu: informazioa bildu, inprentara bidali, banatzaileekin koordinazio lanak burutu, komunikabideetara bidali...
- Hala egokitzen denean Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko dirulaguntzetan administrazio lanak burutu: jasotzen diren eskaerak tramitatu, dirulaguntzen Batzorderako dokumentazioa prestatu, jakinarazpenak eta ebazpen proposamenak prestatu...
- Hala egokitzen denean Kultura, Euskara eta Gazteria Sailetik kanpora egiten diren dirulaguntza eskaeretan administrazio lanak burutu.
- Hala egokitzen denean, herriko jaien eta auzoko jaien prestaketa lanetan administrazio lanak burutu: jai batzorderako deialdia eta dokumentazioa prestatu, egitaraua inprentara bidali, dirulaguntzak bideratu...
- Hala egokitzen denean, Kultura, euskara eta Gazteria arloko ekimenen prestaketan laguntza eskaini saileko buruari, administrazio lanak burutuz.
- Hala egokitzen denean, Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko komunikazio lanetaz arduratu: prentsa, kartelak, gonbidapenak, sarrerak...
- Potxoenea eta Sutegiko Lokalen kudeaketa bideratu.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Zerbitzuan zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu.

#### Hizkuntz Eskakizuna

Aurretik zetorren Programak 4. hizkuntz eskakizuna zuen eta amortizatzeraz doan administrari/itzultzaile postuak ere 4. HE (TG) zuen. Berdina mantentzea proposatzen da. Lanpostuen Zerrendan txertatzeko, hizkuntz eskakizunaren aginduzko txostena eskatu dio Usurbilgo Euskara sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Horretarako, proposamena helarazi dio 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, dioena betez eta aldeko txostena eskuratu da.

#### Behin-behineko funtzionarioa izendatzea

Kultura, Euskara eta Gazteria saileko administrari/itzultzaile plaza Lanpostuen Zerrendatik eta Plantilatik amortizatu eta programa honetatik datorren postua sortuta, gaur egun programa betetzen duen langilea bitarteko funtzionario izendatzea proposatzen da, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuko Legearen Testu Bategina arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 10. artikulua 1.a) atalaren baitan. Langile hau IVAPeko Hizkuntza normalkuntzarako erdi mailako teknikarien lan-poltsatik dator eta titulazio eta hizkuntz eskakizun ukanbeharrak betetzen ditu.

Izendapen honekin gehienezko 3 urteko muga kontuan izan beharko da, izan ere 10.4. artikulua zera dio: *“En el supuesto previsto en el apartado 1.a), las plazas vacantes desempeñadas por personal funcionario interino deberán ser objeto de cobertura mediante cualquiera de los mecanismos provisión o movilidad previstos en la normativa de cada Administración Pública. No obstante, transcurridos tres años desde el nombramiento del personal funcionario interino se producirá el fin de la relación de interinidad, y la vacante solo podrá ser ocupada por personal funcionario de carrera, salvo que el correspondiente proceso selectivo quede desierto, en cuyo caso se podrá efectuar otro nombramiento de personal funcionario interino”.*

#### Postuak sortzeko lege baldintzak

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 126. artikulua zera dio: *“2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*

*a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.(...)*

Hornidurari dagokionean, abenduaren 28ko 21/2021 Legea estatuko 2022ko Aurrekontuen Lege orokorra da eta zera dio 20. artikuluan: *“Uno. 1. La incorporación de personal de nuevo ingreso con una relación indefinida en el sector público, a excepción de los órganos contemplados en el apartado Uno.e) del artículo anterior, se regulará por los criterios señalados en este artículo, sujetándose a las siguientes tasas de reposición de efectivos: a) En los sectores prioritarios la tasa será del 120 por cien y en los demás sectores del 110 por cien.*

#### - Alderdi ekonomikoa





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Amortizatzen den plaza C1 taldekoa, 14. Lanpostu Maila eta 13. Ordainketa Mailakoa da (soldata gordina hirurtekorik gabe: 37.396,40 euro). Kontuan izan behar da 2019. urterarte postua betetzen zuen karrerako funtzionarioak 14 hirurteko zituela (2019 urtean adibidez hirurtekoen kontzeptupean 7.517,44 euroko gastua izan zen). Bestetik, sortuko litzatekeen plaza A2 taldekoa, 17. Lanpostu Maila eta 15. Ordainketa Mailakoa da (soldata gordina hirurtekorik gabe: 40.868,30 euro). Edonola ere kasu honetan, proposaturiko aldaketa honek ez du I. kapituluan koste gehigarriak, izan ere, sortuko den lanpostuak aurretik aurreikusitako kostea jasoa baitzuen udal aurrekontuan, eginkizun horiek aldi baterako programaren bidez bete izan direlako.

Lanpostu horretan izendatuko den funtzionarioak behin-behineko izaera izango du eta, bere kasuan, I. Kapituluaren gastu hori egonkortuko den edo ez ez du plaza sorrerak eragingo, gerora estatuko Aurrekontu Legeek bere kasuan ezarriko duten birjarpen tasa eta Lan Eskaintza Publikoak baizik.

#### - Ondorioa

Plantila handitzeko aukera egon badago TRRL 126.2 artikuluko baldintzak betetzen badira. Kasu honetan, postu bat amortizatu eta beste bat sortzen da. Ikuspuntu ekonomikotik ez dago masa salarialaren igoerarik, programa hau aurtengo aurrekontuan ere jasoa baitzegoen, 2019, 2020 eta 2021 ekitaldietan bezala.

Postu Lanpostuen Eskaintza Publikoan sartu eta behin betiko karrerako funtzionarioz bete ahal izateko ordea urtero Estatuko Aurrekontu Orokorretako legeek ezarritako birjarpen tasaren menpe egongo da.

### **8.- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO POSTUAK**

Lan legepeko postu hauek ere lehen aipaturiko Enplegu Publikoa Egonkortzeko deialditik datoz. Orain artean Lanpostuen Zerrendan jaso izan dira baina oso modu lausoan, beti ere Eusko Jaurlaritzako hitzarmenari eta hark ezarritako baldintzei erreferentzia orokorra eginez. Postu hauen oinarriak argitaratu aurretik haien baldintza eta ezaugarriak zehaztu egin behar dira.

Hizkuntza Eskakizunei dagokienean, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aldeko txostenak eskuratu dira eta maila berrien aldaketa egin da zerrendan. Postu bakoitzerako sarbide titulazio eta baldintzen kasuan saileko buruak txostenak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzarekin informazioa osatu ondoren eta funtzioak ere zehaztu dira (I. eta II. eranskinak).

### **9.- GARBITZAILEA (1.8 kodea), UDALTZAINA (3.4), ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUGIROA SAILEKO BURUA (4.1) eta OPERARIO 3 (5.11 kodea) HUTSIK UZTEA**

Garbitzaile eta Arkitekto postuen kasuan, bertako karrerako funtzionarioak une honetan beste administrazio batean lanean aritzeagatiko eszedentzian daude. Batez ere arkitekto/Hirigintza burua postuan egon diren gorabeherekin amaitu eta berriro ere karrerako batekin hornitze aldera, postua hutsik uztea proposatzen da, ondoren EPE batean jaso eta prozesua atera ahal izateko. Ondorioz, eta koherentziaz, egoera berean dagoen garbitzailearen postuarekin berdina proposatzen da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Beste biei dagokienean, Mikel Balenciaga udaltzainaren jubilazioaren eta Francisco Nogueiras brigadako langilearen aurrejubilazioaren ondorioz postu horiek hutsik uztea proposatzen da.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2022ko urriaren 11ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2022ko urriaren 20an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren onartua gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika, Patxi Suarez

-Abstentzioa: Carlos Perez

Beraz, Pertsonal batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## **ERABAKIA**

LEHENENGO: 2022ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **9.- 2022. URTEKO PLANTILA ORGANIKOAREN ALDAKETA.**

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2022ko Plantilla Organikoa 2021eko azaroaren 25ko ohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, erreklamaziorik egon ez zenez, behin betikoz 2022ko otsailaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondoren martxoak 17ko Udalbatzan ere hainbat aldaketa onartu ziren.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

2022ko Lanpostuen Zerrendan proposatu diren aldaketek Udal Plantilan duten eragina honakoa da:

#### **- ERRENTA ETA ONDARE TEKNIKARIA**

2022ko martxoaren 17an egindako ezohiko udalbatzaren bilkuran 2022ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartu zen, eta besteak beste postu honen sarbide tituluaren kodea aldatu zen. Titulazio berriak aldiz postua administrazio berezitik orokorrera zuzentzea behar du, baina bere unean ez zen egin. Orain hori zuzentzea proposatzen da.

#### **- UDALTZAINEN SAILKAPEN TALDEA C1 IZATEA**

1/2020 legegintzako dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenaren arabera, oinarrizko eskalako agenteak C1 kategorian egon behar dute (35.2.c artikulua). Orain artean Usurbilgo Udaleko Lanpostuen Zerrendan C1/C2 moduan agertzen ziren, baina Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloarekin kontrastatu ondoren, udaltzain postu guztiak C1-an egon behar dutela baieztatu da, baita behin behineko funtzionarioak direnean ere. 4. xedapen iragankorraren arabera, jadanik karrerako funtzionario direnei ere eragiten die, C1 taldera igarotzen baitira ondorio guztietarako.

#### **- BRIGADABURUA**

Brigadako lanpostuen kasuan ezohiko egoera bat gertatzen da. Izan ere, brigadaburua C2 taldean dago eta aldiz, lantalde berean dagoen elektrikaria (legezko ikasketa beharngatik, etab.) C1 taldean. Kiroldetikiko mantenu arduraduna ere C1 taldean dago. Azken urteetan mahai gainean jarri da brigadaburua C1era igo eta hizkuntza eskakizuna ere 2tik 3ra igotzea. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren (EPOETB) 76. artikulua aurreikusitakoa bete behar da lanpostu bakoitzari dagokion titulazioan. Artikulu horrek kidegoen eta eskalen sailkapena zehazten du, horietan sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera:

- C2: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua
- C1: Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea (edo dagokion adarreko titulua)

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aldeko txostena lortu da 3. HE ezarri ahal izateko eta egun behin-behinekoz postua betetzen duen langileak ere bi betekizunak betetzen ditu. Soldata Maila berdina izango (15. Ordainketa Maila) du baina Lanpostu Maila 11tik 14-ra igo behar zaio C2 taldetik C1 taldera igotzearen ondorioz. Soldata berdina jasoko duen arren, eragina hurrengo hiru urtekoaren balizko sorreran, Elkarkidetzan eta berariazko osagarrian izango du (azken kasu honetan beherantz, izan ere ordainketa maila berdina mantenduz, kopuru gordin berdinarekin, lanpostu maila igotzen denean eragina hori da).

#### **- OPERARIO LAGUNTZAILE BI POSTU SORTZEA, HORIETATIK BAT DESGAITASUNERA ERRESERBATUA**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

2022ko maiatzaren 6an Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu zuen: *Enplegu publikoaren behin behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera doan I. Eranskinean jasotakoaren arabera*. Erabaki hori maiatzaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta maiatzaren 26an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen. Bertan, besteak beste, honako hauek jaso ziren:

IZENA	SAILKAPEN TALDEA / AZPITALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	LAN SAIOA	KOPURUA	HE	TXANDA	
Operario Laguntzaile	E	AB	ZB	Murriztua	2	1	Irekia 1	Ezgaitasuna 1

Bi postu hauek ez ziren une hartako Plantila eta Lanpostuen Zerrendan formalki existitzen, urtez urte brigadako lan kargen beharretarako behin behineko funtzionarioen izendapena egiten zen arren. 2022ko apirilaren 1eko Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren ebazpenak ere, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak abian jartzeko orientabideei buruzkoak, zera zioen erreferentziatzko posturik gabeko behin-behineko enplegatuei buruz (1.7 puntua): *“2020ko abenduaren 31tik 3 urte atzera erreferentziatzko dotaziorik gabe behin behineko moduan lanean aritu diren langileak egon baldin badira egiturazko beharrei erantzunez eta aurrekontu dotazioarekin, hauek ere prozesu honetan sartuko dira. Izendapenaren unean postu zehatzak esleitu behar dira, hutsik dauden bakanteak erabiliz edo postu berriei alta emanez”*. Egonkortzeko Lanpostu Publikoen Eskaintza onartu aurretik postu hauek Lanpostuen Zerrenda eta Plantilan sortzeko denborarik ez zen izan, aurretik Eusko Jaurlaritzako beste zuzenketa eta aldaketa batzuk ere sartu behar izan zirelako. Edonola ere, une horretan ez zen ezinbestekoa eta orain egingo da aldaketa, beti ere prozesuko oinarriak onartu aurretik.

Postuen ezaugarriak aurretik gainerako operario laguntzaileen berdinak izango dira lanpostu maila, ordainketa maila, hizkuntza eskakizuna (HPS-ko txostena eskuratu da), gidabaimena eta funtzioei dagokienean. Aldiz, bereizgarri gisa lanaldia martxotik abendurakoa izatea %100ean eta postu horietako bat ezgaitasunera erreserbatua izatea dute.

#### Desgaitasun erreserba

Halakotzat hartuko dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikularen 2. atalean definitutakoak (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak), eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez desgaitasuna modu progresiboan egiaztatzen duten eta hautaketa-prozesuekin bateragarriak direla egiaztatzen dutenak.

#### Funtzioen eskuliburua

Aurretik ere udalak baditu operario laguntzaile postuak, eta hortaz, horien funtzio eta ezaugarri berdinak ezarri dira funtzioen eskuliburuko fitxan.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

**- EUSKARA TEKNIKARI ETA KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIA SAILEKO ADMINISTRARI ETA ITZULTZAILE FUNTZIOAK BETETZEKO PROGRAMA: PROGRAMATIK TEKNIKARI POSTUA SORTZEA ITZULTZAILE/ADMINISTRARI POSTUA AMORTIZATUZ**

Kultura, Euskara eta Gazteriako administrazioa/itzultzailea

2019ko azaroaren 22an erretiroa hartu zuen ordura arte lanpostu hori bete zuen administrazio/itzultzaileak. Ezaugarri hauek zituen:

Izena:	Kultura, Euskara eta Gazteriako administrazioa/itzultzailea
Kodea:	7.6
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	C1
Eskala:	Administrazio Orokorra
Azpieskala:	Administrazioa
Titulazioa:	Batxilertitulu, titulu tekniko edo baliokidea
Lanpostu maila:	13 (Usurbilgo Ordainketa Maila 14)
Berariazko osagarria:	-
Hizkuntz eskakizuna:	4 TG
Arduraduna:	Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko Burua

Postuaren berezitasunak kontuan hartuz eta sailaren beharrak berraztertzeke egoeran izanda, egokitzat jo zen euskara teknikari bat izendatzea programa baten bidez eta frogar horren ondorioz, postuak zer nolako moldaketa behar zuen erabakitzea. Lanpostuaren Zerrendatik ez zen amortizatu eta oraindik hor dirau, baina hutsik.

“Euskara Teknikari eta Kultura, Euskara, Gaztedia saileko administrazio eta itzultzaile” Programa 2019ko azaroaren 6ko 2019/0947 dekretuaren bidez “Euskara Teknikari eta Kultura, Euskara, Gaztedia saileko administrazio eta itzultzaile programa” sortu eta programa aurrera eramateko Ander Moron Lasa izendatu zen bitarteko funtzionario. Programa hori A2 taldea, 4. HE eta 17. lanpostu mailarekin (Usurbilgo 15. ordainketa maila) sortu zen. Programa honi luzapenak egin zaizkio eta TREBEP-ko 10.1.c) muga kontuan hartuz laister legez duen gehienezko 3 urteko iraupena agortuko du, hain zuzen ere 2022ko azaroaren 5ean.

Saileko beharrak

Sailaren azterketa bat eskatu zaio Kultura, Euskara eta Gaztedia saileko arduradunari, programa bera eta hutsik dagoen postua baloratu eta hemendik aurrerakoak proposatu ahal izateko. Txosten horren arabera, programa, funtzioei dagokienean, bere horretan egokia dela eta euskarazko 4. hizkuntz eskakizuna (TG, Teknikari Gaitua) ikusten duela proposena.

Euskara Teknikari, itzultzaile eta Kultura, euskara eta gaztedia saileko administrazio postua sortzea

Ondoren jasotako ezaugarriekin postua sortzea proposatzen da:

Izena:	Euskara Teknikari, Itzultzaile eta Kultura, euskara eta gaztedia
--------	--



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

	saileko administraria
Kodea:	7.6
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	A2
Eskala:	Administrazio Berezia
Azpieskala:	Eskala Bereziko Teknikaria
Titulazioa:	Gradu-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea
Lanpostu maila:	17 (Usurbilgo Ordainketa Maila 15)
Berariazko osagarria:	19.530,20 euro
Hizkuntz eskakizuna:	4 (TG)
Arduraduna:	Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko Burua

#### Lanpostu berriaren egitekoak (funtzio zerrenda)

Lan hauek burutuko ditu, beti ere, Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko buruaren gidaritzapean:

- Euskara Saileko funtzionamendu egokiaz arduratu, ezarritako helburuei erantzuna emanez eta horretarako sailera atxikitako baliabide material eta ekonomikoak antolatu, koordinatu eta gainbegiratu.
- Euskara Sailaren urteko kudeaketa-planaren proposamena eta aurrekontu proposamena landu eta horren jarraipena eta kontrola burutu.
- Saitetik bideratzen diren erosketa eta kontratazioetan, arlo teknikoari dagozkion eginbeharrak gauzatu: baldintza teknikoen agiriak prestatu, kontratazio prozeduran aholkularitza teknikoa eskaini, kontratuen jarraipena eta kontrola burutu, gastuen kontrola eraman eta gainbegiratu...
- Euskara arloan azterlanak egitea, planak eta programak diseinatzea, kudeatzea eta ebaluatzea eta arlo hauetan jarduerak sustatzea eta koordinatzea.
- Euskara arloan kide anitzeko organoetan, biltzarretan eta organo aholku-emaileetan parte hartzea edota bideratzea eta Udalak parte hartzen duen erakunde eta elkarteetan udalaren izenean parte hartzea.
- Zerbitzuan sortzen diren euskara gaiei lotutako lanak burutu: Buruntzaldeko planari lotutako egitasmoak, UEMAkoak, Udaleko Euskara Planari lotutako jarraipena, Euskaraldia, Toponimia, hizkuntza kexak...
- Euskararen normalizazio eta erabilpen plangintzaren kudeaketaz eta diseinuaz arduratu, bai udalean zein udalerrian: diseinua, ekintzen lehentasuna, plangintzaren jarraipena...
- Euskararen esparruko gaien lege xedapenak, arautegia eta abarren analisia egin eta ezagutu puntualki eta modu eguneratuan, arduradun politiko eta interesa agertzen dutenei horren berri emanez.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Udalak eskatzen dituen euskara alorreko dirulaguntzen eskaerak, zuriketak eta eskaeren jarraipena egin.
- Udalak ematen dituen euskara alorreko dirulaguntzen kudeaketa lanak bideratu, txosteena egin...
- Udaleko langileek euskararen erabilera egokiari buruz egindako eskaera eta kontsultei erantzun.
- Euskara arloko keak (herritarrenak zein udal barrukoak) eta erreklamazioak jaso, izapidetu eta bideratu, UEMArekin elkarlanean.
- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko prozesuetan laguntza eskaini: deialdiaren oinarriak interpretatu, informazio hori langileei jakinarazi, langileen eskabideak bideratu, gaia kudeatu, IVAPeko web orria kontsultatu, azterketen emaitzen jarraipena egin, langileei azterketa ereduak eskuratu, eskabidea betetzen lagundu langileari dagokion dokumentazioa osatuz, eskola eskaerak bideratzeko jarraibidearen informazioa kudeatu...
- Euskara alorreko ordenantzak, arautegiak eta hitzarmenak elaboratzea eta zerbitzuari lotutako arautegiak eta oinarriak sortzea.
- Euskara arloan aholkularitza teknikoaren ematea eta kontsultei erantzutea.
- Euskara Saileko informazioa bildu, artxibatu eta dokumentazio sistemaz arduratu.
- Sailean antolatzen edota koordinatzen diren jardueren eta programen hedapenez arduratu (eskuorriak, web orria...) bere kasuan, udal komunikazio arduradunarekin koordinatuz.
- Euskara Sailak kudeatzen dituen talde eta erakundeekin bilerak egin modu erregularrean, ekimen guztiak koordinatzeko.
- Toponimia arloko kontsultei erantzun.
- Itzulpena lanak egitea:
- Itzulpengintzarekin lotutako kontsultei erantzutea.
- Udaleko zerbitzu ezberdinetan sortutako dokumentazioa itzultzea.
- Kanpotik datozen dokumentuen itzulpenak: herritarrek eskatutakoak edo enpresek eskatutakoak.
- Itzulpen eskabide bakoitzari espedientea ireki, Wordfast aplikazioaren bidez bideratu eta datu-basean jarraipena egin. Gero, urteko balantzea egiteko.
- Itzulpenen bat kanpoko enpresaren batera itzultzera bidali behar denean, prozesu guztiaren jarraipena egitea: espedientatu, aurrekontua eskatu, itzulitakoaren ikuskatze lanak egin, fakturen jarraipena egin, datu-basean sartu...
- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko buruari Udalak ematen dituen aisialdia alorreko dirulaguntzen kudeaketa lanak bideratzen laguntzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko espedienteen tramitazio administratiboaz arduratu.
- Herritarrei arreta eskaini, bai zuzenean zein telefonoz, kultura, euskara eta gazteria gaiei buruzko informazioa emanaz.
- Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko artxiboaz arduratu eta mantendu, espedienteak ordenatuz eta dagokion kaxetan sartuz.
- Hala egokitzen denean, kultur agendaren prestaketan administrazio lanak burutu.
- Hala egokitzen denean, kultura agendan administrazio lanak burutu: informazioa bildu, inprentara bidali, banatzaileekin koordinazio lanak burutu, komunikabideetara bidali...
- Hala egokitzen denean Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko dirulaguntzetan administrazio lanak burutu: jasotzen diren eskaerak tramitatu, dirulaguntzen Batzorderako dokumentazioa prestatu, jakinarazpenak eta ebazpen proposamenak prestatu...
- Hala egokitzen denean Kultura, Euskara eta Gazteria Sailetik kanpora egiten diren dirulaguntza eskaeretan administrazio lanak burutu.
- Hala egokitzen denean, herriko jaien eta auzoko jaien prestaketa lanetan administrazio lanak burutu: jai batzorderako deialdia eta dokumentazioa prestatu, egitaraua inprentara bidali, dirulaguntzak bideratu...
- Hala egokitzen denean, Kultura, euskara eta Gazteria arloko ekimenen prestaketan laguntza eskaini saileko buruari, administrazio lanak burutuz.
- Hala egokitzen denean, Kultura, Euskara eta Gazteria Saileko komunikazio lanetaz arduratu: prentsa, kartelak, gonbidapenak, sarrerek...
- Potxoenea eta Sutegiko Lokalen kudeaketa bideratu.
- Zerbitzuan zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu.

#### Hizkuntz Eskakizuna

Aurretik zetorren Programak 4. hizkuntz eskakizuna zuen eta amortizatzerara doan administrari/itzultzaile postuak ere 4. HE (TG) zuen. Berdina mantentzea proposatzen da. Lanpostuen Zerrendan txertatzeko, hizkuntz eskakizunaren aginduzko txostena eskatu dio Usurbilgo Euskara sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Horretarako, proposamena helarazi dio 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, dioena betez eta aldeko txostena eskuratu da.

#### Behin-behineko funtzionarioa izendatzea





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Kultura, Euskara eta Gazteria saileko administrari/itzultzaile plaza Lanpostuen Zerrendatik eta Plantilatik amortizatu eta programa honetatik datorren postua sortuta, gaur egun programa betetzen duen langilea bitarteko funtzionario izendatzea proposatzen da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko Legearen Testu Bategina arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 10. artikulua (1.a) atalaren baitan. Langile hau IVAPeko Hizkuntza normalkuntzarako erdi mailako teknikarien lan-poltsatik dator eta titulazio eta hizkuntz eskakizun ukanbeharrak betetzen ditu.

Izendapen honekin gehieneko 3 urteko muga kontuan izan beharko da, izan ere 10.4. artikulua zera dio: *“En el supuesto previsto en el apartado 1.a), las plazas vacantes desempeñadas por personal funcionario interino deberán ser objeto de cobertura mediante cualquiera de los mecanismos provisión o movilidad previstos en la normativa de cada Administración Pública. No obstante, transcurridos tres años desde el nombramiento del personal funcionario interino se producirá el fin de la relación de interinidad, y la vacante solo podrá ser ocupada por personal funcionario de carrera, salvo que el correspondiente proceso selectivo quede desierto, en cuyo caso se podrá efectuar otro nombramiento de personal funcionario interino”.*

#### Postuak sortzeko lege baldintzak

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 126. artikulua zera dio: *“2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos: a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.(...)”*

Hornidurari dagokionean, abenduaren 28ko 21/2021 Legea estatuko 2022ko Aurrekontuen Lege orokorra da eta zera dio 20. artikuluan: *“Uno. 1. La incorporación de personal de nuevo ingreso con una relación indefinida en el sector público, a excepción de los órganos contemplados en el apartado Uno.e) del artículo anterior, se regulará por los criterios señalados en este artículo, sujetándose a las siguientes tasas de reposición de efectivos: a) En los sectores prioritarios la tasa será del 120 por cien y en los demás sectores del 110 por cien.”*

#### - Alderdi ekonomikoa

Amortizatzen den plaza C1 taldekoa, 14. Lanpostu Maila eta 13. Ordainketa Mailakoa da (soldata gordina hirurtekorik gabe: 37.396,40 euro). Kontuan izan behar da 2019. urterarte postua betetzen zuen karrerako funtzionarioak 14 hirurteko zituela (2019 urtean adibidez hirurtekoen kontzeptupean 7.517,44 euroko gastua izan zen). Bestetik, sortuko litzatekeen plaza A2 taldekoa, 17. Lanpostu Maila eta 15. Ordainketa Mailakoa da (soldata gordina hirurtekorik gabe: 40.868,30 euro). Edonola ere kasu honetan, proposaturiko aldaketa honek ez du I. kapituluaren koste gehigarriak izan ere, sortuko den lanpostuak aurretik aurreikusitako kostea jasoa baitzuen udal aurrekontuan, eginkizun horiek aldi baterako programaren bidez bete izan direlako.

Lanpostu horretan izendatuko den funtzionarioak behin-behineko izaera izango du eta, bere kasuan, I. Kapituluaren gastu hori egonkortuko den edo ez ez du plaza sorrerak eragingo, gerora estatuko Aurrekontu Legeek bere kasuan ezarriko duten birjarpen tasa eta Lan Eskaintza Publikoak baizik.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

## - Ondorioa

Plantila handitzeko aukera egon badago TRRL 126.2 artikuluko baldintzak betetzen badira. Kasu honetan, postu bat amortizatu eta beste bat sortzen da. Ikuspuntu ekonomikotik ez dago masa salarialaren igoerarik, programa hau aurtengo aurrekontuan ere jaso baitzegoen, 2019, 2020 eta 2021 ekitaldietan bezala.

Postu Lanpostuen Eskaintza Publikoan sartu eta behin betiko karrerako funtzionarioz bete ahal izateko ordea urtero Estatuko Aurrekontu Orokorretako legeek ezarritako birjarpen tasaren menpe egongo da.

## - OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO POSTUAK

Lan legepeko postu hauek ere lehen aipaturiko Enplegu Publikoa Egonkortzeko deialditik datoz. Orain artean Lanpostuen Zerrendan jaso izan dira baina oso modu lausoan, beti ere Eusko Jaurlaritzako hitzarmenari eta hark ezarritako baldintzei erreferentzia orokorra eginez. Postu hauen oinarriak argitaratu aurretik haien baldintza eta ezaugarriak zehaztu egin behar dira.

Hizkuntza Eskakizunei dagokienean, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aldeko txostenak eskuratu dira eta maila berrien aldaketa egin da zerrendan. Postu bakoitzerako sarbide titulazio eta baldintzen kasuan saileko buruak txostenak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzarekin informazioa osatu ondoren eta funtzioak ere zehaztu dira (I. eta II. eranskinak).

## - GARBITZAILEA (1.8 kodea), UDALTZAINA (3.4), ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUGIROA SAILEKO BURUA (4.1) eta OPERARIO 3 (5.11 kodea) HUTSIK UZTEA

Garbitzaile eta Arkitekto postuen kasuan, bertako karrerako funtzionarioak une honetan beste administrazio batean lanean aritzeagatiko eszedentzian daude. Batez ere arkitekto/Hirigintza burua postuan egon diren gorabeherekin amaitu eta berriro ere karrerako batekin hornitze aldera, postua hutsik uztea proposatzen da, ondoren EPE batean jaso eta prozesua atera ahal izateko. Ondorioz, eta koherentziaz, egoera berean dagoen garbitzailearen postuarekin berdina proposatzen da.

Beste biei dagokienean, Mikel Balenciaga udaltzainaren jubilazioaren eta Francisco Nogueiras brigadako langilearen aurrejubilazioaren ondorioz postu horiek hutsik uztea proposatzen da.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2022ko urriaren 11ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2022ko urriaren 20an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua geratu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika, Patxi Suarez

- Abstentzioa: Carlos Perez



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzari erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

LEHENA: 2022ko plantilla organikoko aldaketei onespena ematea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **10.- 2022AN PRODUKTIBITATE OSAGARRIAK SORTZEA.**

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu.

Irizpenean jasotzen den moduan, bi langileren egoerak aipatu ditu.

Behin partida sortuta, gero alkate dekretuz onartuko dela ordainsariak ordaintzea zehaztu du.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

Gai honi buruz Antolakuntza eta Pertsonal Teknikariak egindako txostenan horrela dio:

### **“AURREKARIAK**

Ander Moron

Maite Iribar Kultura, Euskara eta Gazteria saileko buruak (A2 taldea) 2021eko otsailaren 1ean gaixotasun baja hartu zuen eta horrela egon zen 2022ko otsailaren 22a arte. Hasiera batean bere lanen ordezkapena sail berdinean programa batean ari zen Ander Moron teknikariaren bidez (A2 taldea) egiteko aukera aztertu zen baina juridikoki ezin izan zen bideratu, izan ere programa horretarako hautapena Lanbidetik



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

egin zen eta prozesu hartatik ez zen lanpoltsarik sortu (hortaz ezin zen jakin Ander Moron prozesu horretako lehen hautagaia izan zen ala ez, eta hortaz, ordezkapen hori betetzeko interesa eta eskubidea izan zezaketen beste hautagaiak egon ote zitezkeen, prozesu hori bideratu zuten teknikari eta idazkaria jada ez zeuden udalean lanean eta informazio hori ezin izan zen eskuratu). Zuzeneko izendapena ere baloratu zen zerbitzu eginkizunen bidez, baina Ander Moron behin behineko funtzionarioa izanik ezin izan zen izapidetu.

Hortaz, bitartean, eta lankide baten hutsuneak sailean eragiten zuen lankarga ikusita, beste administrazioetako kultura teknikarien lanpoltsetatik ordezkapena egiteko aukera baliatu zen hainbat poltsetara eskaintzak eginez baina ezinezkoa izan zen teknikaririk lortzea. Egoera horretan, zeharka Ander Moronek Maite Iribarren zenbait funtzio hartu zituen eta Anderrek egiteari utzi zizkion lan administratiboak (betetzen zuen programak ere horrela jasotzen baitzuen) lan karga bidez izendaturiko administrari bidez bete ziren, 2021eko martxoaren 1etik hasita 2021eko urriak 20a arte. Ondoren, denbora aurrera zihola ikusita berriro arloko teknikarien beste lanpoltsa ezberdinak aztertzen hasi eta 2021eko azaroaren 29tik aurrera Maite Iribarren gaixotasun baja propioki ordezkatu zuen ordezkari bat izendatu ahal izan zen ordezkapen iragankorrerako.

Bitarte horretan Ander Moron programako langileak Maite Iribarren lanpostuari dagozkion funtzioak bete izanari dagokion konpentsazio ekonomikoa egin behar zaio.

### Kontxi Zaldua

Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun saileko burua den (A2 taldea) Maria Salsamendi bitarteko funtzionarioak beste administrazio batean praktikaldia egiteko baimena eskatu du 2022ko martxoaren 25etik aurrera, postua gordez baimenak irauten duen bitartean.

Egoera horretan, eta Alkatetzaren proposamenez, egokia ikusi zen ongizate saileko zatia bertako langile batek kudeatzea (kasu honetan, karrerako funtzionarioa den eta urte gehien daramatzen gizarte langileak) eta paraleloki berdintasun gaiak aniztasunekoekin batera eramango dituen programa bat abian jartzea, horretarako baldintzak betetzen zituen teknikaria hartuz (Berdintasun masterra). Gizarte Langile honi, Kontxi Zalduari (A2 taldea), egin dakizkioken izendapen ezberdinak aztertu dira juridikoki eta kasu honetan egokiena funtzioen aldi baterako esleipena da, Maria Salsamendik praktikaldia amaitu edo lanpostua karrerako funtzionario baten bidez dagokion prozesua amaitu ondoren hornitu arte.

### Funtzioen aldi baterako esleipena (atribución temporal de funciones)

Salbuespen gisa, funtzionarioei esleitu ahal izango zaie Lanpostuen Zerrendan sartutako lanpostuei berariaz esleituta ez dauden funtzio bereziak aldi baterako betetzea, edo, aldi baterako bolumen handiagoa dutelako edo egoeraren araberako beste arrazoi batzuegatik, zeregin horiek esleituta dituzten lanpostuak modu iraunkorrean betetzen dituzten funtzionarioek behar bezala bete ezin dituzten zereginak egitea.

Funtzioen aldi baterako esleipenaren oinarri juridikoa honako hau da:

- Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 73.2 artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).
- Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura langileak sartzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorren 66. artikulua (martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua).



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Izendapen honek ezaugarri batzuk ditu. Neurri hori salbuespena da betetako lanpostuaren berezko eginkizunak garatzeko arau orokorrean. Ahal hori aplikatu beharreko arauetan aipatutako kasuak gertatzen direla behar bezala edo behar bezala justifikatzen denean bakarrik erabili ahal izango da. Halaber, neurri hau unean uneko beharrizanera mugatzen da, eta esleipen-epeak mugatzen ditu. Izaera puntuala eta denboran mugatua. Gainera esleitutako zereginak edo erantzukizunak eragindako funtzionarioaren kidegoari, funtzionario-talde profesionalari edo eskalari egokituko zaizkio. Kasu honetan, funtzionarioak bere lanpostuan jarraitzen du, baina aldi baterako esleitzen edo metatzen zaizkio bere lanpostuaz bestelako eginkizunak.

Edonola ere, izendapen honekin funtzionarioak bere lanpostuari dagozkion ordainsariak jasotzen jarraituko du, dagozkion kalte-ordainekin. Beste lanpostu bati dagozkion eginkizunak benetan betetzeak kalte-ordaina ekarri behar du funtzio horiek betetzen dituen langilearen alde, Administrazioa bidegabeki aberastea debekatzen duen printzipioagatik.

Hala ere, kalte-ordain horiek bat datoz Estatuko Administrazioaren ikuspegitik funtzioak aldi baterako esleitzeko kasuarekin, eta ez toki-administrazioaren kasuan. Horrela, Estatuko Administrazioan, aldi baterako eskuduntzak normalean ematen dira; horregatik, Diru Sarreraren Araudi Orokorrak aipatzen dituen kalte-ordainak dietei buruzkoak dira, ekonomikoki zenbateko garrantzitsua direlako; jurisprudentziak aldi baterako eskuduntzak zerbitzu-eginkizuntzat hartzen ditu kalte-ordainen kasurako.

Tokiko administrazioari dagokionean eginkizunak aldi baterako esleitzea **produktibitate-osagarri** baten bidez bakarrik konpentsa daiteke; izan ere, kontzeptu hori izaera subjektiboko ordainsari-kontzeptu bat da, funtzionario jakin baten inguruabar bereziak ordaintzeko erabiltzen dena, hala nola, Toki Administrazioako Funtzionarioen Ordainsarien Araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, errendimendu berezia, aparteko jarduera, funtzionarioak bere lana betetzean duen interesa eta ekimena, lanpostuarekiko lotura objektiborik gabe.

Lanpostuan jardutearekin eta esleitutako helburuekin zuzenean lotutako inguruabar objektiboek erantzuten die, eta denboraldi batean esleitutako zenbatekoek ez dute inolako eskubide indibidualik sortuko ondorengo ondoko aldiei dagozkien balorazioei edo balioespenei dagokienez.

### Ordainsarien egitura

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 24. artikulua adierazten duenez, funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa eta egitura administrazio publiko bakoitzaren legeen bidez ezarriko dira, zenbait faktore kontuan hartuta. Ondoren, c) letran, produktibitate-osagarria zehazteko faktore gisa adierazten dira funtzionarioak bere lanean duen interes-, ekimen- edo ahalegin-maila eta lortutako errendimendua edo emaitzak.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere VII. Kapituluaren Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek jasoko dituzten ordainsariak ezartzen ditu. 79.1 artikulua ordainketa osagarri hauek arautzen ditu:

*“c) emankortasun-osagarria, etekin berezia, ohiz kanpoko iharduna eta funtzionarioak bere lanpostuan jartzen duen ardura eta ekina ordaintzeko jarria.*

*Gastu-egitarau bakoitzean eta bere osoan hartuta finkatuko da horren zenbatekoa, bakoitzarekiko zenbatekoak zehaztea eta hori jasotzea merezi duten funtzionarioak izendatzea, ezar daitezkeen erizpideen arabera eta lanarigoaren ordezkotza duen Sailak txostena egin ondoren, gai den sailari dagokiola”.*



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Usurbilgo Udaleko lan baldintzak arautzen dituen Lan Hitzarmeneko 62. artikulua araberako erakundeko enplegatuek jaso ditzaketen ordainsari kontzeptuak hauek dira:

**A.- Oinarrizko soldata**

- Taldeko soldata: Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legean ezartzen da
- Antzintasuna/hirurtekoak: Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legean ezartzen da
- Aparteko ordainsaria: urtean bi

**B- Soldata osagarria**

1.- Lanpostu mailako osagarria: betetzen den lanpostuari dagokion maila, 30 mailatan sailkatuta (A taldean 21-30), EAEko Aurrekontu Orokorren legean ezarriko dena urtero.

2.- Berriazko osagarria: lanpostu bakoitzak berriaz duena, zailtasun tekniko, dedikazio, ardura, bateraezintasuna, arriskua, nekagarritasuna.

**a- Tarte bereziko berriazko osagarria**

**b- Dedikazio bereziko berriazko osagarria**

- Lanaldi luzatua modalitatea (gehienez %10a, urtean 93 ordu gehiago)
- Erabateko baliagarritasuna modalitatea (gehienez %20a)
- Erabateko baliagarritasuneko lanaldi luzatua modalitatea (gehienez %25a)

3.- Produktibitate osagarria: funtzionarioak eskaintzen dion errendimendu berezia, ez ohiko jarduerara eta interesa.

4.- Aparteko zerbitzuengatik haborokina: ohiko lanalditik kanpo egindako jarduerengatik, ezin dira finkoak izan bere kopuruan ezta aldikotasunean ere.

Produktibitate osagarriari buruz honakoa zehazten du ondoren 74. artikuluan: “*Produktibitate osagarriaren kontzeptua, arautzea, egitura eta kopurua euskal funtzio publikoaren araudian zehazten da*”.

Produktibitate-osagarria ez dagokio lanpostuaren edukari, funtzionario jakin bati baizik. Produktibitatea balioestean, kontuan hartu behar dira lanpostua betetzearekin zuzenean lotutako inguruabar objektiboak eta lanpostuari esleitutako helburuak.

Edonola ere, produktibitate-osagarria denboraldi jakin batean ordaintzeak ez du eskubide indibidualik sortzen.

Onartzeko prozedura

Udalbatza bakoitzaren Osoko Bilkurari dagokio aurrekontuan funtzionarioei produktibitate-osagarria esleitzeko zenbateko globala zehaztea, Toki Administrazioako Funtzionarioen Ordainsarien Araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 5.5 artikulua araberako, beti ere 7.2. b) artikuluan adierazitako gehieneko mugen barruan.

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 37.1.b) artikulua araberako, langileen ordezkariekin negoziatu behar gaiten artean kokatzen da funtzionarioen ordainketa osagarrien ezarpen eta zehaztapena (kopuru orokorra). Zentzu horretan, proposamen hau 2022ko ekainaren 27an ospaturiko Negoziazko Mahaian aztertua izan da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Ondoren, behin aurrekontuan kontusail orokorra sorturik, norbanako bakoitzari egindako esleipenerako prozedura alkatetza dekretuz bideratu behar da (5.6 artikulua).

#### 2022ko aurrekontu legediaren mugak

2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorretako abenduaren 28ko 22/2021 legeak bere 19. artikuluko bigarren atalean zera zehazten du:

*“En el año 2022, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2021. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.”*

Arau honek 7. atalean zera xedatzen du: *“Lo dispuesto en los apartados anteriores debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo”.*

Hortaz, ordainsarien igoeraren mugatik at geratzen dira izaera berezi eta ezohikoaren bidez eginiko ordainsarien egokitzapenak. Neurri horiek udalen auto antolaketa administratiboaren ahalmeneren eremuan kokatzen dira, eta hortaz, hasierako muga hori gainditu ahal izango du beti ere beharra arrazoituz gero. Kasu honetan izaera berezi hori betetzen du kontusail horren sorrerak, ondoren alkatearen dekretu bidez bi langile zehatzei aplikatuko zaielako irizpide zehatz batzuen baitan. Gainera, bi titularren ordezkapena propioki beste langile berri baten bidez osoki egin ez izanak aldi berean aurrezpen batzuk sortu ditu udalaren aurrekontuan.

23. artikuluko lehen atalak aldiz, 5. puntuan zera zehazten du: *“El complemento de productividad podrá asignarse, en su caso, a los funcionarios interinos, al personal estatutario temporal y al personal eventual, así como a los funcionarios en prácticas, cuando las mismas se realicen desempeñando un puesto de trabajo, siempre que esté autorizada su aplicación a los funcionarios de carrera que desempeñen análogos puestos de trabajo, salvo que dicho complemento esté vinculado a la condición de funcionario de carrera”.*

#### Kopuru ekonomikoak

Kontusailerako proposaturiko kopurua, azterturiko bi kasuen kalkulurako, gehienez 3.000 eurokoa da. Kopuru zehatzak finkatzeko erabiliko den irizpidea honakoa izango da: funtzioen aldi baterako esleipenaren edo antzeko kasuetan 2 soldaten arteko urteko kopuru gordinen arteko diferentzia, funtzio horiek harturiko denboraren proportzioan.

Kontuan izan behar da bi ordezkapen hauek ezohiko ordezkapenak izan direla, uste gabean iritsitako bi egoera eta hortaz, aurretiaz antolatu ezin izan direnak: lehenengo kasuan hasieran uste zena baino gehiago luzatu den gaixotasun baja eta bigarren kasuan beste administrazio bateko praktikaldia egiteko aukera.

#### **ONDORIOAK**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Hortaz, eta beti ere udaleko kontuhartzailtza sailak 2022ko Udal Aurrekontuetan dagokion finantzaketa badagoela ziurtatuz gero, teknikari honek proposatzen du osagarri honen ezarpena Negoziazio Mahai nagusian negoziatua izan denez Pertsonal Batzordean diktaminatzea eta azkenik eta Udalbatza-Plenoan onartzea, honako erabaki proposamenarekin:

#### ERABAKI PROPOSAMENA

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Udaleko 2022ko udal aurrekontu orokorrean produktibitate osagarri kontzeptupean 3.000 euroko kontusaila sortzea.

**BIGARRENA:** Osagarri horren ordainketa alkatetza dekretuz bideratuko da eta kalkulua modu honetara egingo da: hiru hilabetetik gorako funtzioen aldi baterako esleipenaren edo antzeko kasuetan 2 soldaten arteko urteko kopuru gordinen arteko diferentzia, funtzio horiek harturiko denboraren proportzioan.

**HIRUGARRENA:** Akordio honen berri langileen ordezkarietara eta Kontuhartzailtza sailari ematea.”

Gaia 2022ko urriaren 20an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren, gehiengoz onartua geratu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Bastarrika, Patxi Suarez

-Abstentzia: Carlos Perez

Beraz, Pertsonal batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udabaltzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Udaleko 2022ko udal aurrekontu orokorrean produktibitate osagarri kontzeptupean 3.000 euroko kontusaila sortzea.

**BIGARRENA:** Osagarri horren ordainketa alkatetza dekretuz bideratuko da eta kalkulua modu honetara egingo da: hiru hilabetetik gorako funtzioen aldi baterako esleipenaren edo antzeko kasuetan 2 soldaten arteko urteko kopuru gordinen arteko diferentzia, funtzio horiek harturiko denboraren proportzioan.

**HIRUGARRENA:** Akordio honen berri langileen ordezkarietara eta Kontuhartzailtza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Bastarrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.





Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 11.- EUSKARALDIA.

Euskaraldian izena emateari buruzko proposamena batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzeari berretsi dute.

Jarraian, Luken Arkarazok mozioa irakurri du.

Batzarkideek aho batez honako erabaki dute:

### “EUSKARALDIAN IZENA EMATEA

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua - hirugarren edizio honetan 15 egunekoa-. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia euskara ulertzen duten herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da.

Ariketa sozial honen hirugarren edizioa **2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra** bitartean egingo da. Leloak dioen bezala, **HITZEZ EKITEKO GARAIA** dela esan nahi dio Euskaraldiak gizarteari, euskararen erabilera beste pauso bat eman dezagun.

Aurtengoan ere bi helburu nagusi ditu Euskaraldiak. Batetik, Euskaraldian parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats gehiago ematea. Eta bestetik, parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea.

2020an 6.000 entitatek hartu zuten parte Euskaraldian. Haien artean zen Usurbilgo Udala. Konpromisoa berrestea da gure nahia, udalak eguneroko jardun eta jomuga duen hizkuntzaren normalkuntza lortzeko bidean eragin biderkatzailea izan dezakeen ekintza dela iritzita.

Zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izanagatik, Udalak entitate gisa parte hartzeko barne zein kanpo ariguneak sortuko ditu. Barne ariguneak dinamika eta kide egonkorak dituzten atalak dira. Kanpo ariguneak, berriz, jendaurrekoak. Denetan emango dira euskararen erabilera areagotzeko urratsak.

Usurbilgo Udalak hasieratik babestu du ekimena, eta, beste behin, interesgarri irizten dio parte-hartzea berresteari.

Usurbilgo Udalbatzarrak aho batez erabaki du:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/27

1. Usurbilgo Udalak, entitate moduan Euskaraldian izena emateko proposamena ontzat ematea, eta izena emateko prozesua abiatzea.
2. Kanpo zein barne ariguneak izan daitezkeen guneak eta taldeak identifikatzea.
3. Talde horietako kideei ariketan parte hartzeko proposamena egitea.
4. Euskaraldian izena ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **12.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 19:20ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**